

Herririk Herri

Bittor Kapanaga kantuen eta bertsoen bidez
ekarriko dute gogora Otxandion >9



JAIAK!

OTXANDIO
ZORNOTZA



'Partenoia'
konponduko
dute, eta
solairu bat
gehituko diote >4

> Zaldibarko eskolan hainbeste urtean
itxaroten egon diren konponketak adostu
dituzte Hezkuntza Sailagaz.

Txosnagunea
Pinondon jarriko
dute aurten ere >3

Durangoko Udaleko Kultura Batzordeak txos-
nak Pinondon kokatzea erabaki du. Horixe izan
da, hain zuzen, Txosna Batzordeak prentsa ohar
baten bidez udalari egindako eskaera. Txosne-
tako ordezkariak "pozik" daude hartutako era-
bakiagaz.

Sarrionandia
Huhezin arituko
da hizlari >6

www.goiena.eus webguneak aurreratu duenez,
Joseba Sarrionandiak saio bi eskainiko ditu hu-
rrenko ikasturtean, Mondragon Unibertsita-
tean, euskal kulturagintzaren transmisioaren in-
guruan. Ibarretxe eta Egiguren ere hizlari aritu-
ko dira.

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua Industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



ADAR-
BIRRIINTZAILEA



ZULAGAILUA



ENBORRAK
ZATITZEKO
MAKINA



MOTOZERRA



GASOLINAZKO
MOTORDUN
AITZURRA

Durungaldea > 6

Frackingaren kontrako
2.500 sinadura batu
dituzte Durungaldean

Iurreta > 8

Akordio barik, Arriaundiko
pastelgintza arloa itxiko dute

Elorrio > 3

Herritarren arretarako bulego
bat irekiko du udalak

Durango > 2

Hamahiru lagunek brigada lana
egingo dute sei hilabetez

Herririk herri**Txosnak Pinondon egongo dira aurten ere**

Udalaren erantzunagaz pozik dago Txosna Batzordea

DURANGO Markel Onaindia Uda aurretik askatu da korapiloa: txosnak Pinondon egongo dira aurten ere. Duela aste bi prentsa oharra zabaldu zuen Txosna Batzordeak, aurten lekua zein izango zen oraindik ez zekiela ohartarazteko, eta udalari gaia uda aurretik argitzeko eskatu zion, "kalitatezko jaiak antolatu ahal izateko". Izan ere, lekuaren arabera ekintzak eta egituraketa aldatu ahal dira. Txosna Batzordeak ekainerako lekua zehaztea eskatu zion udalari urtarrilean; hainbatetan batzartzeko nahia ere agertu zion, eta azkenean joan zen egunean jaso zuen erantzuna.

Albisteagaz pozik agertu dira batzordekoak. Udalean Tabira, Zumar kalea eta Montevideo etorbideko orubea ere aztertu zituzten, baina batzordearen asmoak egin zuen aurrera. Bilduk eta Aralarrek babestu zuten, EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren, eta PP kontra agertu zen.

"Kokaleku naturala"

Aurrera begira, leku berari eutsi gurako liokete batzordekoek. "Pinondo izan beharko litzateke aurrerantzean ere txosnen kokaleku naturala". Urtero txosnak lekuz aldatzen ibili beharrek antolaketa arazoak sortzen dizkiela azaldu dute.



Iazko San Fausto jaietan Pinondoko txosnagunean hartutako irudi bat.

Urte luzez txosnak Pinondon kokatu ostean, joan zen hamarkadan txandakako sistema bat adostu zuten, bizilagunengatik. Baina akordio epea amaitu egin zen. 2011n akordioa sinatu zuten Txosna Batzordeak eta udalak,

eta tartean Zumar kalerako alternatiba bat ezartzea zegoen, batzordearen ustez, jaigunetik urrun zegoelako. 2012an Kurutzian ipini zuten txosnagunea, baina badirudi leku hori baztertu dutela; anbulantzia batek

sartzeko arazoak izan zituen, eta zalaparta sortu zen.

Hamabost talde daude Txosna Batzordean, eta jaietan herritarren partaidetza bultzatzen dute. Aurten, iaz lez, Pinondon ospatuko dituzte sanfaustoak.

Txakurren jabeek eta udalak behin-behineko araudia adostu dute

DURANGO M.O. Txakurren jabeek eta udal ordezkariak batzarra egin zuten joan zen martitzenean, txakurren ordenantza idatzi bitartean behin-behineko araudia adosteko. Durandog elkarteak baieztatu duenez, Ibaizabal parkearen zati batean, skate pistaren ondoan, eta Kastejon parkean goizeko

08:00etatik 11:00etara txakurrak askatu ahal izango dira. Egun osoan askatu ahal izango dituzte Muruetatorreko bidegorrirako sarreran, Zuhatzola parkean, hilerri ondoko berdegunean eta Pagasarri parkean. Astolabideko belargunea atonketa lanen zain dago. Beste berdegune batzuk baieztatu barik daude.



Zapatuan, Tabiran eginiko elkarretaratzea txakurrei egindako erasoak salatzeke.

Hamahiru lagunek brigada lana egingo dute sei hilabetez

Udalak hamahiru behargin kontratatu ditu, Lanbideren laguntza bat erabilita



PSE-EEko Pilar Ríos, atzoko prentsaurrekoan.

DURANGO M.O. Hamahiru durangarrek sei hilabeterako lana edukiko dute, udalak Lanbideren diru-laguntza bat aprobetxatuta kontratatu dituelako. Beharrea hastear dira, eta brigada lana egingo dute: hiru iturgintzan ibiliko dira,

bost pinturan, bi lorezaintzan eta beste bi mantentze lanetan. Horri esker, udal eraikinetan konponketak egingo dituzte, eta lorategiak eta plazak zainduko dituzte, besteak beste.

Lanbidek 2013an iragarri zuen erakundeentzako eskain-

tza, eta Durangoko Udalak PSE-EEren ekimenez egin zuen eskaera. Pilar Ríos bozeramaileak prentsaurrekoan gogoratu du gobernu taldeak ez zuela proposamenik aurkezten, eta epea amaitu baino lehen eurek hartu zutela iniziatiba.

Kontratazioak Sartu Zabalitzen erakundeak egingo ditu. Riosek azaldu duenez, irizpide sozialak ezarri dituzte: errekurso barik daudenak, langabezian luzaroan dauden 45 urtetik gorako fizonak eta familiaren pisua daramaten emakumeak.

Guztira, 252.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak, eta Lanbidek 162.000 euro ipini ditu.

Riosek esan du PSE-EErentzako lehentasuna dela langabeziaren kontra egitea: "Horrelako iniziatibak aurkezten jarraituko dugu".

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia)

Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523

Publizitatea: 946 217 902

publi@anboto.org

2014ko uztailaren 11a, 12. urtea - 553. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

Sukaldaritza begetarianoan murgildu dira hainbat lagun

Patxi Marinak ikastaroa eskaini du Elorrion

ELORRIO Markel Onaindia Elorrixa talde ekologistak antolatuta, eta Iturizoro elkartearen laguntzaz, sukaldaritza begetariano ikastaroan parte hartu dute dozena bat lagunek. Dezente gehiagok eman dute izena, baina leku mugagatik itxaron egin beharko dute. Lau astez batu dira Alkartu elkarte gastronomikoan, eta Patxi Marina izan dute maisu, Berrizko Pastor del Gorbea jatetxeko sukaldaria. Amantala jantzi, erremintak hartu, eta zentzumenak zabaldu dituzte.

Hasteko, entzun eta ikusi. Marinak astero produktu baten bueltan lan egitea proposatu die. Piperra da gaurko osagai nagusia. Batzuek egosi egingo dute, beste batzuek frijitu, xehatu... Aurrekoetan, kipula, perretxikoa eta tomatea landu dituzte. Maisuaren aholkuei jarraitzen hasi dira. Nekane Bilbaori, esaterako, apunteak hartzea egokitu zaio, gero taldekideei pasatzeko. Beste batzuk argazki kameragaz edo mugikorragaz dabilta, ikusten dutena artxibatzen. Marinak animatzen ditu teknologia erabiltzera.

Produktuak hartu, ukitu eta lanera. Ikasleak hasi dira piperra txikitzen edo zartaginak prestatzen. “Aguakatea platereratu dugu?”, galdetu du ikasle batek. “Oraindik ez dugu aterako, bestela belztu egingo delako”, erantzun dio irakasleak. Josu Urizarbarrena gustura dabil ikastaroan: “Hemen oinarri batzuk hartu, eta gero etxean esperimentatzen dugu”. Lagunartean hobeto ikasten dela uste du. Marina ere pozik dago: “Jendea lan egiteko, praktikatzeko eta ikasteko gogoz dator”. Sukaldaritza goraldean dagoela dio, eta telebistak eragina daukela.

Uxue Altubek Agenda Bateatuaren bidez izan zuen ikastaroaren berri: “Aspalditik neukan sukaldaritza ikastaro bat egiteko gogoia, eta animatu egin nintzen. Gainera, begetarianoia pixka bat ezezagunagoa da”. Iturizoroko presidente Jose Ramon Lazkanok ere parte hartu du, eta egindako kremak eta tartaletak interesgarri egin zaizkio.

Lana amaituta, piper usain gozoa dago Alkartun. Mahaian batu, eta dastatzera doaz.



Sukaldaritza begetariano ikastaroko ikasleak, Patxi Marina irakasleagaz batera.



Ikasleak, lanean murgilduta.



Errezeten prestaketetan.

Herritarren arretarako bulego bat irekiko dute

Lehenengo fasean tramite liburua diseinatuko dute

ELORRIO M.O.

Herritarren Arretarako Zerbitzua ipiniko dute Elorrion, eta beharginak horren prestaketan hasi dira. Bulego berri bat izango da, tramiteak egiteko eta informazioa jasotzeko. Proiektuaren lehenengo fasean tramiteen liburua diseinatuko dute, bertan egin ahalko dena deskribatzeko eta sinplifikatzeko. Udalaren aurreikuspenen arabera, zeregin hori azarorako amaituko da. Ge-

ro, bigarren fasean, lekua aukeratu eta zerbitzuaren ordutegia ere zehaztuko dute. Otsailean onartu zuten egitasmoa.

Udalak adierazi du “tratu pertsonala eta indibidualizatu” indartuko dela. Gainera, zentralizazioak tramiteak azkartzea ere ekarriko duela azaldu du.

Bestalde, dagoeneko udal-txean ordainketak kreditu txartel bidez ere egin ahal direla informatu du udalak.

Igerilekuak martxan daude berriro, arazo teknikoak konpondu ostean

Udalaren arabera, “eurite indartsuaren” eraginez sortu zen arazoa eguen gauean

ELORRIO M.O.

Elizaldeko igerilekuak joan zen eguenean inauguratu zituzten, baina barikuan bertan itxi egin behar izan zituzten, arazo teknikoengatik urak gainezka egin zuelako. Konpondu ostean, martitzen arratsaldean zabaldu zituzten berriro.

Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi du eguen gauean gertatu zela arazoa, “eurite indartsuagatik”. Antza denez, Ur

Partzuergoko azpiegiturak ez zuten ondo funtzionatu, eta urak

Ur Partzuergoko azpiegiturak ez zuten ondo funtzionatu, eta urak gainezka egin zuten

gainezka egin zuten igerilekuetan. Horregatik, lau egunez

itxita egon dira. Ura birsortzeko bonba elektrikoak martxan daude berriro.

Martitzen arratsaldean zabaldu zituzten igerileku txikia eta ertaina, eta eguaztenean txirristak dauzkana. Udalak adierazi du herrian ilusioa sortu dutela igerilekuek, eta arazoa ezustekoa izan dela. Konpentsazio lez, iraila amaitu arte egongo dira zabalik, eta ez hilabete erdira arte, aurreikusita zegoen moduan.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta
www.zarateyexpe.com

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
<p>14 Jean Echenoz / 2014</p>	<p>SAHARA ETA PALESTINAKO IPUINAK X. Susperregi eta A. Odriozola / 2013</p>	<p>20 URTE ZUZENEAN Betagarri / 2014</p>

Lehen Hezkuntzako eraikinean lanak egiteko konpromisoa adostu dute

'Partenoia' izenez ezagutzen den eskolako eraikinari solairu bat gehituko diote



Arantza Baigorri, Javi Tera, Benito Paco, Asier Munitis, Nati Mesa eta Rafa Urizar elkartu ziren agerraldian.

ZALDIBAR Itsaso Esteban Zaldibarko Udaleko alderdi politikoen, guraso elkartearen eta irakasleen ordezkariak elkarrekin agertu ziren eguaztanean, Lehen Hezkuntzako eraikina konpontzeko Eusko Jaurlaritzagaz lotu duten akordioaren berri emateko. EAJko zinegotziek ezin izan zuten prentsurrekoan egon, baina udaleko alderdi guztiak daude ados: akordioa "berri oso pozgarria" da, eta behar-beharrezkoa da *Partenoia* izenez ezagutzen den eskolako eraikinaren konponketa.

Urtetako eskaria gauzatu, eta solairu berri bat altxatuko diote Lehen Hezkuntzako eraikinari. Izan ere, eraikina txiki geratu da: 2016. urterako ez legoke ume

guztientzako lekurik. Urtea amaitu orduko obra esleitu, eta 2015ean lanean hastea da asmoa. Eusko Jaurlaritzak finantzatu du obra, eta lau gela, erabile-askotako gela bi, eta komun bi atonduko dituzte. Guztira, 573 metro karratuko azalera izango du solairuak.

Solairu berriko obrak egin baino lehen, eraikinak sabaian dauzkan arazo larriak –arrakalak, hezetasunak eta itoginak, esaterako– konpontzeko lanak egindo dituzte uda honetan. Guztira, 29.262 euro inbertituko dituzte itoginak eta hezetasunak konpontzeko (11.705 udalak ordainduko ditu, eta 17.557 Eusko Jaurlaritzak). 1985eko eraikin horren kanalizazioak

barrutik eginda daude, eta itoginak daude gela guztietan.

Baigorri alkateak azaldu duenez, "*Partenoia*rena 2007an sartu zen Jaurlaritzaren lehen-tasunezko obren zerrendan". Baina urtea joan urtea etorri proiektua onartu barik egon da.

Egoera larria kontuan hartuta, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko hiru kide gonbidatu zituzten ekainean eskola bisitatzera, arazoa gertutik ezagutu zezaten. Lehen Hezkuntzako eraikinaren egoera ikusita, "oso harrিতuta" geratu ziren legebiltzarkideak, alkateak azpimarratu duenez. Bestalde, eskolako obra 2014an egiteko konpromisoa eskatzeko, legez besteko proposamena ere aurkeztu dute.

Ortu ekologikoetarako gunea atonduko dute

Aurreko legegintzaldiko lehen saiakeraren ostean, aurtun 15.500 euro gorde dituzte aurrekontuetan

ATXONDO J.D.

Aurreko legegintzaldiko gobernu taldeak Atxondon ortu ekologikoak sortzeko hainbat pauso eman zituen, baina ezin izan zuen asmoa bete. Orain, lau urte geroago, orduko asmo hori gauzatu egingo du gobernu taldeak. Proiektua osatzen dabil, eta aurrekontuetan 15.500 euro gorde ditu azpiegiturak aurtun atontzeko: ortuen banaketa, eta aldagelak eta biltegia izango dituen txabola, adibidez. Horrela, udalak datorren udaberrian banatu nahi ditu ortuak interesa duten herritarren artean.

Igerilekuen ondoko 2.900 metro karratuko lursail bat erabiliko du horretarako. Lursail

pribatuko jabeak prest daude lurak uzteko. Udalak erabaki beharko du lursail horiek erosi edo errentan hartuko dituen. Eremu horretan 75 bat metro karratuko 40 ortu egin gura ditu udalak. Aurreko legegintzaldian irekitako izenematean jasotako interes kopurua hartu du banaketarako oinarritzat, baina, dena prest dagoenean, oinarriak eguneratu, eta beste izen-emate bat irekiko du. Udalak proiektu hau gauzatu gura du: "Produktu ekologikoak eta elikadura subiranotasuna bultzatu gura ditugu. Horretaz gainera, askorentzat aisialdirako modu bat dira ortuok", dio Rosa Elizburu alkateak.



Igerilekuen ondoko belardi bat erabiliko dute ortu ludikoetarako.

Ez dago adostasunik arrapalaren inguruan

Zubizabalakoek ez dute onartu udalaren proposamena

ZORNOTZA Joseba Derteano Udal ordezkariak eta Zubizabalako bizilagunen ordezkariak batzar bat baino gehiago egin dute tren geltokirako arrapala zelan egin erabakitzeko. Adostasuna zegoela zirudien, baina batzar horietatik irtendako pro-

posamenari ezetz esan diote Zubizabalako bizilagunek batzar ireki batean.

Zubizabalako bizilagun Jose Luis Gomezek azken udalbatzarrean adierazi zuenez, "bizilagunen iritzi orokorra proposamena ez onartzea da". Horregaz

batera, "orain arte mantendu dugun adeitasunagaz beste alternatiba bat bilatzen" jarraitze-ko deia egin zuen.

David Latxaga alkateak "harrিতuta" hartu zuen jakinarazpena. Zubizabalako zazpi bizilagunekin egindako azken batzarrean zazpitik sei "proposamenagaz ados" agertu zirela adierazi zuen: "Proposamen egokia zela uste genuen". Hala ere, beste batzarren bat egiteko ez duela eragozpenik aipatu zuen azken udalbatzarrean.

Atzerriko 20 ikasle hartu ditu barnetegiak uda honetan

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako barnetegiak eta Etxepare Institutuak sinatutako akordio bati esker, uda honetan 20 bat ikasle atzerritar daude barnetegian: AEB, Errusia, Italia, Alemania, Irlanda eta Britainia Handikoak, adibidez.

Etxepare Institutuak euskararen presentzia Euskal Herritik kanpoko unibertsitate askotan bermatzeko lan egiten du. Zornotzako barnetegiak ahalegin horretan lagundu gura dio Etxepareri, erakunde bien arteko akordioa bultzatuta. Horrek "euskararen ezagutza zabaltzea, eta euskararekiko interesa ekarriko" duela adierazi dute, eta, interes horregaz batera, etorkizunean "euskararen gaineko ikerketa lan berriak" ere sortu daitezkeela uste dute.

DURANGALDEA IRUDITAN ARGAZKI LEHIAKETA

Klik!>

- Durangaldeko hamahiru herritako argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen
- Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

SARIA
500€





LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



**Euskal
Sagardoa**
Sidra Natural
del País Vasco

Euskal Sagardoa

Eusko Labela duen Euskal Sagardoa soilik gure baserriarrek sagardoa egiteko bereziki ekoizten dituzten baimendutako sagarrekin egiten da. Sagarrak Euskadiko ustiattegietan batzen dira eta heltze puntu onenean daudenean jasotzen dira.

Modu naturalean tratatua, gas eta azukrerik gehitu gabe; kontrol zorrotzen emaitza da sagardoa. 100% naturala, betiko abileziari jarraituz egina. Hazik ezaugarri organoleptikoak baloratuz azken kata egiten du; kontuan hartzen dira usaina,

zaporea eta itxura. Horren emaitza kalitate goreneko sagardoa da, ingurumena erabat errespetatuz ekoizten dena.

Horrela identifikatzen da

Eusko Labela duen Euskadiko Sagardoa beti botilan aurki dezakegu eta 100% bertakoa bezala identifikatzen da zenbakidun eta kontrolatutako etiketa bidez, hazik ziurtatutako produktua dela bermatuz.



**Euskal
Baserriko
Oilaskoa**
Pollo de
Caserio Vasco

Euskal Baserriko Oilaskoa

Eusko Labeka duten Oilaskoak haragia ekoiztera bideratutako hegaztiak dira, jatorriz lumaje gorria eta hanka horiak dituzte eta genealogikoki aukeratutakoak izaten dira hazkuntza makalekoak direlako, landara egokitzen direlako eta aire librean hazten direlako.

Elikadura naturala du, zerealetan oinarrituta, jaten duenaren %60tik gora artoa baita. Hiltzerakoan 81 egun izan behar ditu gutxienez, eta haren ekoizpen-sistema tradizionala da. Horrek guztiak haragi osasuntsu, samur eta zaporetsua ziurtatzen dio kontsumitzaileari, merkatuan aurkitu ohi dugunaren oso desberdina.

Horrela identifikatzen da

Euskal Baserriko Oilaskoa osorik eta zatietan saltzen da, eta beti Eusko Labelaren zigiluarekin identifikatuta egongo da.

Oilakoa osorik dagoenean Eusko Labelaren markaren etiketa izango du hankan. Erretiluetan, berriz, Eusko Labelaren ezaugarria izango duen kontroleko etiketa zenbatuarekin merkaturatzen dira. Gainera, landutako produktuak ere aurki daitezke, izter beteak edo konfitatuak esaterako.

Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, anboto@anboto.org helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOri babes emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@	☎	✉
anboto@ anboto.org	946 816 558	Izen-deiturak _____ Helbidea / Herria _____ Posta kodea _____ Telefonoa _____ Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA



'Anbotoren lagunen'
artean Eusko Label
produktuen otzarak
zozkatuko ditugu

anboto
Lagunak

hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

anboto

Frackingaren kontrako 2.500 sinadura batu dituzte Durangaldean

Fracking Ez Durangaldeak bultzatu du ekimena



Fracking Ez mugimenduko kideak, sinadura bilketa iragarri zutenean.

DURANGALDEA M. Onaindia Fracking Ez plataformak sinadura bilketa abiatu zuen, Gas-teizko Legebiltzarrean herri ekimen legegile bat egin guran. Izan ere, erakunde horrek ez du haustura hidraulikoan oinarritzen den gas ustiapeneko sistema debekatu. 30.000 sinadura behar ziren, eta mugimenduko kideek adierazi dute dagoeneko igaro dutela muga. Durangaldean apirila amaieran hasi ziren sinadurak batzen, eta 2.500 batu dituzte. Eskualdean frackingera baimenak eskatu dituzte, eta “Jaurlaritzak edozein momentutan eman ditzake”, azaldu dute.

Babesa eskertu dute Fracking Ez Durangaldea plataformakoek: “Herriarregandik

jasotako babesa goraiatzekoa izan da. Askok egoeraren berri jakin izan du gure plataformak egindako hitzaldi eta mahai informatiboetan”.

Dena dela, kanpainagaz jarraituko dute irailaren 14ra arte, kontzientziazioa ere badutela helburu. Sinatzeko leku finkoak ere egongo dira Durangon: Hitz liburu denda, Izarbidenda ekologikoa eta Marisatsaren egoitza. Bestelako ekimenak ere badaude abian: gaur fotomatoia egingo dute Durangoko Andra Marian; etxeko balkoietan banderak eskegitzeko eskatu dute; eta oporretan argazkiak atera eta frackingezdurangaldea@gmail.com helbidera bidaltzea ere bai.

Sarrionandia, Mondragon Unibertsitatean hizlari

DURANGALDEA M.O.

Debagoieneko *Goiena.eus* atariak aurreratu duenez, Joseba Sarrionandiak saio bi eskainiko ditu hurrengo ikasturtean Mondragon Unibertsitatean. Euskal Kulturgintzaren Transmisio-ko ikasketetan eskainiko ditu saioak Sarrionandiak. *Goiena.eus* webguneak emandako informazioaren arabera, ikasketen arduradunen zein Sarrionandiaren “gogoa eta esperantza” da egilea Eskoriatzara, Euskal Herrira, etortzea. Berataz aparte, Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohia eta Jesus Eiguren PSE-EEko presidentea ere izango dira hizlarietako batzuk.

Iheslari eta idazle iurretarra erbestean bizi da 1985etik; ETA-ko kide izateagatik kartzelan zegoen, eta, Imanol kantariaren kontzertu bat baliatuta, ihes egitea lortu zuen Iñaki Pikabeagaz batera. Bozgorailu batean ezkutatuta irten ziren Martuteneko kartzelatik. Literaturan hainbat lan kaleratu ditu urteotan, eta 2011n Euskadi literatura saria eman zion Eusko Jaurlaritzak. Hasieran saria atxiki zioten, justiziagaz auziren bat izan zezakeelakoan. Baina Auzitegi Nazionaleko fiskalak adierazi zuen ez zeukala auzirik zabalik. Beraz, bere auziak preskribatu egin dira. Iaz, iheslarien kolektiboak iheslariak etxeratzen hasiko zirela erabaki zuen, eta batzuk sorterrira bueltatu dira.

“Bilduk ez du asmorik proposamenik egiteko”

Amankomunazgoan turismo eskumena hartzea aztertu dute; trabak ipintzea egotzi dio EAJk Bilduri

DURANGALDEA M.O.

Amankomunazgoko gobernuan dago EAJ-PSE-EE eta Abadiñoko Independenteen babesagaz-, eta Bildugaz eduki duten polemika bat azaleratu zuten eguaztenean prentsaurrekoan. Batzorde berezi bat sortu dute eskualdeak eskumen berri bi hartzeko, berdintasunaren eta turismoaren gaineko eskumena, hain zuzen. Antza denez, lehenengo arloan adostasuna dago, baina bigarrenen ez. EAJren proposamena Durangaldeko turismoa Behargintzatik gestionatzea da. Momentuz hori ez doa aurrera, eta interes elektoralagatik trabak ipintzea egotzi dio Bilduri. Argi egin zuen berba Goiztidi Diazek: “Bilduk ez du asmorik proposamenik egiteko”.

Diazek esan zuen Bilduk bere proposamen bat aurkeztea eskatu ziela. Gero, eskumenean ibilbidea “presa barik” egitea eskatu ei zuela. EAJren ustez, “trankil bai, baina kaxoi batean geratu barik” egin beharrekoa da. Horretaz gainera, Bilduko ordezkariak esan omen diete eueguz ezetz, beste norbaitegaz batzartu beharko dutela. Gaitasun falta leporatu die EAJk: “Adarjotze bat da. Beste batzuk izan behar badira hizketakideak, non dago Bilduren zentzua?”.

Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitiaren ustez, “turismo arloan zerbait egin behar da nola edo hala”. Ana Otadui nabarmendu du Jaurlaritzatik eskualdeak indartzen direla, eta horregatik beharrezkoa dela turismo erakunde bat.



Ezkerretik eskumara, Otadui, Diaz, Zarrabeitia eta Totorikaguena.

Egun osoko Aukenen Azoka, probalekuan

Gaur, 19:30era arte, beharpen bereziak eskainiko dituzte Berrizko merkatariak Aukenen Azokan

BERRIZ Amaia Ugaldea

Uztaileko beharpenak bertan daude, eta Berrizko dendariak, azken urteetan legez, eskaintza bereziak prestatu dituzte udako Aukenen Azokarako. Gaur, egun osoan izango dira probalekuan; goizean ipini dituzte postuak, eta 19:30era arte egongo dira.

Umeen arropa, elikagaiak, kirol arropa... askotariko produktuak erosteko aukera egongo da. Berrizko zazpi dendek

Umeen arropa, elikagaiak, kirol arropa... Zazpi dendek parte hartuko dute azokan

parte hartuko dute azokan: Txaparro denda, Boutique Luisa, Ibai-Ondo burdindegia, Tipi-tapa umeen arropa denda, Salkin kirol denda, Txiki-txiki mertzeria eta Asibar arropa denda.

BMEn, lehendakari aldaketa Berrizko Merkatari Elkartean bederatzi urtez lehendakari izan den Saturnina Blanca uztailean jubilatuko da, eta bere ordezkari Keñu zentro optikoko Aitziber Zabalak hartu du berriz lehendakari postua; Blancaren aurretik bera zen lehendakaria.

Herriko merkatarien egoera “gogorra” dela azaldu du Zabalak, baina badabiltzala lanean. Momentu honetan saltokietan hobekuntzak egiteko dirulaguntza eskariekin dabil. Zabalak, baina badabiltzala lanean. Momentu honetan saltokietan hobekuntzak egiteko dirulaguntza eskariekin dabil.

Eguaztenetik domekara arte, jaietan murgilduta daude Mendiola auzoan

Rockabillya eta punka izango dira gaur entzungai

ABADIÑO Itsaso Esteban

Kontzertuak izango dira Mendiola auzoko jaietan aurkeran, gaur: Odolkiak Ordainetan, Arkada Social eta Las Tea Party DJaren doinuak izango dira entzungai; Tafallako rockabillya, Arrasateko punka eta Bilboko elektronika, hurrenez hurren. Bihar, bestalde, eguerdian abiatuko dute egitaraua auto klasikoaren erakusketagaz. Ondoren, herri bazkarian elkartzeko dira 14:30ean, eta umeentzako jolasak egingo dituzte arratsaldean, 16:30etik aurrera.

Gainera, Mendiolako jaietan tradizio handia duen hitzordu bat izango da bihar, 17:30ean: artzain-txakurren txapelketa. Tortilla txapelketagaz, Luhar-

tzen erromeriagaz, bolo txapelketagaz eta txokolate-janagaz amaituko dute eguna.

Eguerdian abiatuko dute biharko jai egitaraua: auto klasikoaren erakusketa egingo dute

Eguaztenean hasi zituzten Mendiolako jaiak, eta Jai Batzordeak domekara arteko egitaraua zabala antolatu du. Domekan, 13:00etan kenduko dute Donien Atxa. Baina horren aurretik meza, Alluitz dantza taldearen emanaldia eta jaietan egongo diren zozketa egingo dituzte.

Irailtik aurrera trafikoari itxita egongo da San Trokaz plaza

ABADIÑO I.E.

San Trokazeko bizilagunek bakarrik izango dute San Trokaz plazara autoz sartzeko baimena irailaren 1etik aurrera. Gainerako herritarrek trinkete eta probaleku ondoko aparkalekuan utzi beharko dute autoa, eta inguru horretan oinezkoek izango dute lehentasuna.

Erabaki horren berri emateko Abadiñoko Udalak komunikabideetara bidali duen oharrean azaltzen denez, “azken urteotan ikaragarri handitu” da trafikoa Zelaieta auzoko inguru horretan, eta neurri horregaz “eskola, pilotalekua, eliza eta udaletxea dauden guneak atondu, eta herritarren lasaitasuna, bizi-kalitatea eta segurtasuna hobetu” gura ditu Abadiñoko Udalak.

Uztailean erakusketa berrituko dugu



FORD FOCUS
 > **EcoBoost motorra**
 Esposizioko 1.500
 auto prezio berezian.

7.100
 eurorainoko
 deskontua

www.fordkondia.com



ford.es

Ford Focus gama batez besteko kontsumo konbinatua 4,2tik 7,2 litroa 100 kilometroko. CO2 emisioa 109-169 g/km.
 Esposizioko auto batzuetara mugatutako deskontua. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Deskonturik handiena aldatu egin daiteke modelooren arabera. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin. Ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
 Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA
 Tel.: 946 815 135

BERRIA



FORD KA

> **Auto-Start-Stop sistemarekin**

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.
 Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako.
 Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire
 girotuarekin eta MP3arekin.

5.990€



Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

Arriaundiko pastelgintza lantegia ixteko prozesuan akordiorik ez

LABen ustez, enpresak egindako eskaintza ez da nahikoa: “Atzera egin dute”



Asteon langileek egin dituzten elkarretaratzeetako bat.

IURRETA Amaia Ugalde
Atzo zuten azken eguna adostasunera heltzeko, eta ez da horrela izan; Arriaundi SL enpresako zuzendaritzak pastelgintza lantegiko beharginen kontratuak etengo ditu laster, zuzendaritzak proposatutako baldintzekin. Aste honetan hainbat elkarretaratze egin dituzte langileek eta datorren asterako dei bi egin dituzte: Martitzenean, 12:00etan Andra Marin eta eguenean 19:00etan Goienkalen egingo dituzte kontzentrazioak.

Arriaundiko pastelgintza lantegian hamabost behargin egon dira lanean, eta ordezkari sindikala LABekoa da. Uztailearen 4an greba mugabakoa

hasi zuten hamabost langileek. LABek dionez, astelehenean zuzendaritzagaz batu ziren, erregulazio txosteneko proposamenari buruz berba egiteko, eta mahai gainean ipinitakoa “eskasa baino eskasagoa” iruditu zitzaizkien; “atzera egin dute”. Ez dira bat etorri langileen birkoatzeekin eta kalteordainekin.

LABen arabera, hasi dira pastelgintzako lantegia husten, eta beharginak greban diren artean, langileak aldi baterako laneko enpresen bidez hartu dituzte.

Okindegiaren egoera
Arriaundi SL enpresak bi lantegi ditu: okintza arlokoa bata eta

pastelgintza arlokoa bestea. Pastelgintza arlokoa itxi, eta okintza arlokoan soldata murrizketak egingo zituztela adierazi zuen zuzendaritzak apirilean.

Okindegiko langileek soldata murriztea onartu dute. Bertako ordezkariak ELAk eta CCOOK daukate. LABen arabera, sindikatu horiek “burua makurtu dute”. “Okinek eta pastelgintzako langileek elkarrekin negoziatu gogoa adostu genuen, eta, azkenean, okindegikoek soldata jaitsiera onartu dute”. ELAk, bere aldetik, langileen erabakia errespetatu duela esan du ohar bidez: “Lantegia ixteko meatuaren aurrean, soldata jaitsiera onartzea erabaki zuten.”

Zerrategia abenduan hasiko dira botatzen, Bideondotik Goiuriko errepide alborara. Orduan hasiko du udalak birpartzelazio prozesua. Epe ertain-luzera, testuinguru ekonomikoak laguntzen duenean, etxebizitzak egiteko asmoa dago. Lau bloke izango lirateke, guztira 64 etxebizitzagaz. Bloke horietako bi udalarenak izango lirateke, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez. “Printzipioz etxebizitza guztiak libreak izango lirateke, baina zelan kudeatu pentsatu beharko da”.

Abenduan egingo dituzte Belakortu zerrategia lekuz aldatzeko lanak

64 etxebizitzako bloke bi eraikitze asmoa dago

IURRETA A. U.
Abendu amaierarako hutsik egongo da Bideondotik Belakortu zerrategiak izan duen lursaila. Osoko bilkuran onartu dute 450.000 euro bideratzea zerrategia lekuz aldatzera. Diru horre-

gaz aktibitatea tokiz aldatzeko kalte-ordaina, eraikina botatzea eta esleipen soberakinak ordainduko dira. Lurren %44 udalarena da, eta 450.000 euro arduratu egingo ditu, gero beste jabeengandik %56 kobratzeko.

Jai Batzordeak laguntza eskatu du aurtengo jaiak antolatzeko

MAÑARIA Markel Onaindia
Ate joka daude Andra Mari jaiak, hilabete eskas falta da. Jai Batzordeak landu du egitaraua, eta herritarren aurrean aurkeztu ere bai. Baina jaietan lan handia egin behar izaten da, eta herritarren laguntza eskatu du batzordeak. “Jai herrikoiak egiteko, herritarren partaidetza behar da”, adierazi du. Esaterako, txandak egiteko edo garbiketarako laguntza behar da. Animatzen denak 616 332 296 telefonoan topatu du informazioa.

Abuztuaren 13tik 16ra ospatuko dituzte Andra Mari jaiak. Jende guztiarentzako moduko jaiak antolatzen saiatzen direla esan dute batzordekoek. Aurreratu dutenez, 14an Gatiburen kontzertua egongo da, eta 16an Itziarren Semeak taldeak joko du.

Iker Jakak jaietako kartel lehiaketa irabazi du bigarren bider

IZURTZA J.D.
Iker Jaka Barandikak irabazi du aurtengo Izurtzako jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa. Lau bider aurkeztu da lehiaketa horretara, eta aurtengoagaz gainera 2012koa ere irabazi zuen. Kultura Batzordeak bost parte-hartzailearen artean hautatu du. Jakak 20 urte ditu, eta Zientzia Politikoak ikasten dabil Leioako unibertsitatean; diseinu lana asko gustatzen zaion hobby bat dela dio. Eibartarra izanagatik, badu Izurtzagaz lotura, izeko bat Etxano auzoan bizi duelako.

Kartela egituratzeko orduan jaietako hainbat ekintza eta herriko hainbat eraikin sartu ditu: pilotalekua, tortilla txapelketa eta musikariak, adibidez. “Jaien izaera herrikoian oinarritu naiz kartela zelan diseinatu erabakitzerako orduan”, azaldu du.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSOE



Kalean bertan?

Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordeko kideek bisita egin zioten lehengo astean Durangoko osasun zentroko Etengabeko Arretako Guneari (EAGri), zuzenean ezagutu, eta “egoera kalean bertan ikusteko”.

Legebiltzarkideak iritsi zirenean, bigarren solairuko bilera-aretoa eraman zituzten, eta Osasun sailburuordea den Guillermo Viñegrak eta zuzendari gerentea den Jon Guajardok –Osakidetza-ko ordezkari gisa– egoerari buruz zuten bertsioa eman zieten. Ez zieten utzi hara joandako langileekin eta sindikatuekin harremanik izaten. Osakidetza-ko ordezkari batek alde egiteko gonbita egin zien sindikatuei, han zereginik ez zutela argudiatuta.

Ordu edo minutu batzuetako bisitak langileekin hitz egin gabe, langileen egoeraren berri izateko, Durangoko dituen beharrianak ikusteko. Hori ez da kalean bertan egotea.

Kalean bertan gu gaude, Durangoko herritarrak, gure osasun zerbitzu publikoaren kudeaketa txarra pairatzen. Eta urteak eman ditugu kalean bertan, langileen alboan, larrialdietako zerbitzua indartzeko eskatzen, beste erizain postu bat eta Iurretan anbulantzia medikalizatu bat jartzea aldarrikatzen. Orain dela hilabete batzuk, EAJ-PNVk adabaki bat jartzea erabaki zuen, orduetegi murriztuko anbulantzia bat jarri baitzuen alderdian, bizi eskarri aurreratuko anbulantzia jarri ordez. Ez da hori guk eskatzen genuena, ez baita anbulantzia medikalizatua. Zeren zain daude neurriak hartzeko? Kalean bertan ez-behar bat noiz gertatuko, ala?



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

Bertsoen eta kantuen bidez Bittor Kapanaga gogoratuko dute bihar

Gontzal Mendibilek eta Niko Etxartek jardungo dute

OTXANDIO Joseba Derteano Bittor Kapanaga (1925-2011) euskaltzale, ikertzaile eta idazle otxandiarrak gogoratuko dute bihar, 20:00etatik aurrera, Otxandioko elizan egingo den kantaldian. Euskal kultur gintzan eta euskalgintzan beragaz hartu-emanan izan zuten askotariko eragileak ibili dira antolaketan lanetan.

Bittor Kapanaga ikerlari eta ekintzaile sutsua izan zen, eta esparru askoren artean banatu zituen bere indarrak: euskararen ikerketan eta kooperatibismoan, adibidez. Abestietarako letrak ere sortu zituen, eta letra horiei musika jarri zioten musikariak eta kantariak batuko

dira bihar: Gontzal Mendibil, Niko Etxart, Josu Zabala, Xeberri, Patxi Villamor eta Txomin Bengoa, esaterako. Otxandioko abesbatzak ere parte hartuko du. Banaka, binaka zein taldeka Kapanagaren letrak dituzten abestiak kantatuko dituzte: *Egungo giropean, Gure mutillak, Gorbea, Geu askatzaile...* Seguru-erik, *Arabian bagare* da denetan ezagunena.

Kantaldiaren aurretik, Kapanagaren bizitza, lana eta ondarea gogoratzen dituen hamabost minutu inguruko bideolan bat erakutsiko dute. Ondoren, Kapanaga ezagutu zuten Xabier Amuriza, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak hainbat

bertso kantatuko dituzte. Kantua, bertsoa eta oroimena uztartuko dituen ekimen honetarako sarrerak sei euro balio du, eta egunean bertan erosi daiteke.

Iluntzeko ekimenaren aurretik, eguerdian Kapanagaren inguruko bazkari-tertulian antolatu dute Korostondon, baina amaituta dago txartelak erosteko epea.

Kapanaga autodidakta zen eta esparru askotara bideratu zituen bere ikerketak; esatera-

ko, euskararen jatorriari buruz teoria berezia sortu zuen; laburrean esanda, euskarak hiru iturburu dituela zioen, geografia ezberdinetatik jasoak.

Otxandion bertan kooperatibismoa sustatzen jardun zuen. 1953an 'Euzko Gogoa' aldizkaria idazteari ekin zion. Geroago, besteak beste, Zeruko Argia eta Jakin aldizkarietan ere egin zituen kolaborazioak. 1966an, Gerediagako zuzendaritzako parte izatera sartu zen.



Kapanagak esparru askotara bideratu zituen bere azterketak. Txelu Angoitia

> DURANGALDEA ASTEON

Osasunari buruzko erakusketa Elorrioren

ERAKUSKETA > DYAk eta Farmamundi Euskadik *Osasuna, balioak eta giza-ekintza* izeneko erakusketa antolatu dute Elorrioko Iturri kultur etxean. Elkarte biek elkartasunaren alde egindako lana hainbat kartelen bidez erakutsiko dute. Asteon irekiko dute, eta uztailaren 24ra arte egongo da zabalik: 08:30etik 14:00 arte.

70.000 euro kirol taldeentzat

DIRU-LAGUNTZA > Elorrioko Udalak 70.000 euro bideratu ditu herriko kirol taldeentzat. Hainbat irizpide hartu dituzte kontuan banaketarako. Elorri kirol taldea (15.182 euro), txirrindulari elkarte (11.379) eta errugbi taldea (11.059) dira kopuru handiena jasoko duten hiru elkarteak.

Bedeinkazio eguna Urkiolan

MEZA > Domekan umeen bedeinkazio eguna izango da Urkiolako santutegian; meza nagusia 12:00etan izango da, baina bedeinkapena eguneko meza guztietan egingo dute. Uztailaren 20an, aldiz, ezkonduen eguna izango da. Familia meza 12:00etan izango da, eta, ostean, urrezkoei eta zilarrezkoei omenaldia egingo diete.

Lurraldebusek martxan du udako ordutegia

Mallabia-Ondarroa linean aldaketak daude

MALLABIA Itsaso Esteban Lurraldebusek ordutegi berria jarri du martxan udako oporrei begira. Mallabia-Ondarroa autobus linean aldaketak egongo dira hemendik eta irailaren 1era arte. Ordutegi aldaketa honek herritarren laneko eta aisialdiko beharrei erantzun gura diela azaldu dute garraio bideko arduradunek. Ordutegi aldaketak Lurraldebusen webgunean

(www.euskotren.es) agertzen dira, eta 943 415 208 telefono zenbakian ere kontsultatu daitezke.

'www.euskotren.es' webgunean kontsultatu daitezke ordutegi aldaketak

Jaietako afarian izena emateko deia egin dute

Uztailaren 24an egingo dute herri afaria

GARAI Markel Onaindia Uztailaren amaieran, herriko jaiak ospatuko dituzte Garain. Santa Ana egunaren bueltan hasi, eta San Ignazio egunera arte ailegatuko den egitaraua izango da urtero lez. Ekintza ugari antolatzen ditu Trumoitte jai batzordeak, eta aurtengorako ere prestatu dute programa. Jaietako ekitaldi arrakastatsuenetako bat herri afaria izan ohi da,

aurten, uztailaren 24an egingo dena. Dagoeneko zabaldu dute inskripzioa, eta izena emateko deia egin dute antolatzaileek.

24an, gauko 21:00etan hasiko da afaria. Hamasei urtetik beherakoek hamar euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek hogeitun. Izen-emateko, 946 816 393 edo 610 948 389 telefonoetara deitzeko eskatu dute Trumoittekoek.

Akordioa

Uztailaren 8an izandako bileraren ondoren, Durangoko Udaleko eta txakurren jabeon ordezkariok behin-behineko akordio batera heldu adostu genuen, irailera arte indarrean mantenduko den araudia onartzean.

Araudi horretan txakurrak solte egon ahal izateko guneak ezarri dira behin-behinean, batzuk egun osoan erabili ahal izateko, eta beste batzuk 8:00etatik 11:00ak arte, goizez, eta 20:00etatik 23:00, gauez. Negoziazioetan udaleko ordezkariak eta txakurren jabeok zenbait gune aurkeztu eta onartu genituen, baina horietako zenbait udalaren zerbitzu teknikoaren iritzia menpe geratu ziren. Era horretan, Durangoko txakurren jabeok maiz erabiltzen ditugun belarguneak onartutako artean dauden jakin ahal izateko, udalak informazio zehatza jarriko du bere webgunean.

Ziurtasunez onartutako guneen artean daude Ibaizabal parkearen zati bat, Muruetatorre inguratzen duen bidegorritik gertu dagoen beste bat -skate pistaren ondoan-, eta Kastejon parkea, 8:00-11:00 ordutegiarekin, goizez, eta 20:00-23:00, arratsaldean. Egundakoak dira Muruetatorre inguruan dagoen bidegorrirako sarrera -atletismo pistaren ondoan-, Zuhatzolako parkea, hilerrira gertuago dagoen belargunea eta Pagasarri parkea; Astolabideko belargunea atonketa lanen zain geratuko da.

Horrez gain, Durangoko txakurren jabeok eta udal ordezkariak negoziazioetan jarraituko dugu, iraila eta gero indarrean geratuko den txakur araudia hobetzeko. Orain onartuak ez dauden belarguneen baliabideak aztertze eta onartuak daudenetan azpiegiturak zein ordutegiak hobetzeko.

Natalia Zuazua, Durandog elkartearen izenean

Iritzia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Ainhoa Imaz | Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxeko zuzendaria | Durango, 1965



“Lan barik gelditu direnei erantzun bat ematen saiatzen gara, ikasketekin jarraitu dezaten”

> BERBAZ Jone Guenetxea Irailean, ikasturte berria heltean, Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxeko (HHI) gelak berriro ere ikasle beteko dira. Lan arloan etorkizun hobia topatu guran, 18 eta 50 urte arteko ikasleek oinarrizko tituluak atera edo goi-mailako ikasketak egin ahal izateko sarbide probak prestatuko dituzte. Denek dute helburu bera: lana aurkitzen lagunduko dien formakuntza osatzea.

Zer da HHI?

HHI helduen hezkuntzako ikastetxea da. Krisi garai honetan, DBHko titulua edukitzea ezin-

bestekoa da edozein lanetarako. Titulu hori ez dutenak edo bere sasoian Lehen Hezkuntzako graduatua atera zutenak, gaur egun baliorik ez duenez, titulua ateratzera etortzen dira, behin 18 urte izanda. Bestetik, atzerri- tik etorri diren beste pertsona batzuk hizkuntzak ikasteko dituzten aukerak euskaltegiak edo HHI dira.

Hezkuntza eskaintza oso zabaldua duzue. Zein formazio eskaintzen duzue?

Batetik, oinarrizko tituluak eskuratzeko helburua dutenak etortzen dira. DBHko titulua ateratzeko nagusientzat auke-

ra bakarria HHira etortzea da. Lehen Hezkuntzako ikasketak ere eskaintzen ditugu. Eskolatik inoiz pasatu ez direnak ere etortzen dira. Bestetik, irakaskuntza ez-arautua ere eskaintzen dugu. Sarbide probak prestatzeko laguntza eskaintzen dugu. Lanbide Heziketako goi-mailarako sarbide proba eta unibertsitaterako sarbide proba ere prestatzen ditugu. Era berean, informatika eta ingeles arloko hainbat ikastaro ere eskaintzen ditugu.

Zenbat urte daramatzazue martxan?

20 urte inguru pasatu dira za-

baldu zenetik. Leku askotan egon da kokatuta. Institutuan, Produsan, San Roken eta, azken hamaika urteotan, hementxe, Intxaurren. Hasieran alfabetatze taldeak ziren, idaztera eta irakurtzera etortzen ziren. Hezkuntza ez-arautu gehiago eskaintzen zen: gimnasia eta literatur tertuliak, esaterako. Hezkuntza erreforma etorri zenean sartu nintzen ni, Bigarren Hezkuntzako irakasle. Apurka-apurka hezkuntza arauturako bidea hartzen joan da. Langa-bezian gelditu direnei erantzun bat ematen saiatzen gara, ikasketekin jarraitu dezaten, eta oinarrizko tituluak atera ditzaten. Urtero 60 titulu baino gehiago sinatzen ditugu ikuskaritzan.

Urte hauetan hezkuntza aldaketa handiak gertatu dira. Zein eragin izan dute aldaketa horiek HHI-n?

Ikastetxe honen hasierako ibilbidean Lehen Hezkuntzako graduatua zen indarrean zegoena. 1994. urteaz geroztik DBHren gaineko legea indarrean sartu ondoren, dena aldatu zen, bai hemengo hezkuntza baliabi- deak, bai eskaintza.

Zer profil izaten dute HHiko ikasleek?

Jende asko lanik barik gelditu da, eta etxean egon beharrean konturatzen da DBHko oinarrizko titulua beharrezko duela lan egiteko. Titulu hori ateratzeko hona etortzen da. 18 urte eta 50 urte bitarteko pertsonak dira. Beraz, aniztasun handiko ikastetxea da. Institututik datozen 18 urteko ikasleak izan ditzakezu bizitza guztia lanean eman duen eta langabezia gelditu den 50 urteko pertsona batekin gela berean. Atzerriar ugari ere izaten dugu. Asko sekula ez dira eskolara joan. Hona etorri, eta Lehen Hezkuntza gainditzen dute, eta astiro-astiro jarraitzen dute DBHko titulua atera arte. Informatika ikastaroetara datozenak, aldiz, teknologia berrietan alfabetatu nahi duten gizon-emakumeak dira.

Zein hizkuntzatan ematen dituzue eskolak?

Ikasketa gehienak gaztelaniaz eskaintzen dira, eskaera handiena horixe delako. D ereduko talde bat dugu, euskaraz funtzionatzen duena. Euskarazko talde bat sortzeko ahalegina egin dugu, sasoi batean ez zegoelako, eta jendea animatzen saiatzen gara talde horretara joateko. Goi-mailako zikloetarako sarbidea

prestatzeko euskarazko eta gaztelaniazko taldea dugu. Gehiagok prestatzen dute proba hori unibertsitaterako sarbidekoa baino. Ulertzen dut unibertsitateko tasak igo egin direla, eta, Lanbide Heziketan Durangaldean eskaintza hain zabala izanda, jendeak bide hori hartzen duela.

Hezkuntzan gertatu diren murrizketak zuek ere nabaritu dituzue?

Hurrengo ikasturtean Lehen Hezkuntzan hiru irakasle gutxiago izango ditugu. Atzerriarrentzat euskara eta gaztelania ikastaroak lehen hamar ordukoak ziren, eta hurrengo ikasturtetik aurrera lau ordukoak izango dira, Hezkuntza Sailak horrela erabaki duelako. Hezkuntza arautuari eman gura dio lehenitasuna. Hala ere, orain arteko eskaintza mantentzen saiatuko gara.

“

Urtero 60 titulu baino gehiago sinatzen ditugu ikuskaritzan

Durangaldeko HHiren egoitza nagusia Durangon duzuen arren, beste herri batzuetan ere ematen dituzue eskolak.

Durangon egoitza nagusia dugu, eta hona etortzen dira ikaslerik gehienak. Hala ere, beste herri batzuetan ere badihardugu. Zaldibarko ospitale psikiatrikoan Lehen Hezkuntzako ikasketak emateko talde bat daukagu; Berrizen, Kultur Etxean, atzerriarren bi talde ditugu gaztelania ikasteko, goizetan; Zornotzan, Larreako ikastetxe publikoan, lau talde ditugu; eta Ermuan, liburutegiko azkenengo pisuan, atzerriarrentzako eskolak ematen ditugu, batez ere gaztelania ikasteko. Zornotzan eta Ermuan atzerriarrentzako ikastaroak, Lehen Hezkuntzakoak eta informatika arlokoak ditugu.

Datorren ikasturteko matrikulazioa zelan doa?

Hasteko, ekainean egin daiteke matrikula, baina irailean eta urtarrilean berriro dago egiteko aukera, lau hileka funtzionatzen dugulako. Ikasturte hasierako matrikulan 650 lagunek eman dute izena. Ikasturte osoan, aldiz, 800 ikaslelik gora izaten ditugu.

Bakarne Urizarbarrena | Margolari eta eskultorea | Abadiño, 1966**“Formarik ez daukanari forma ematea da gustuko en dudana”**

Uztailean, Bilboko Ercilla hotolean izango ditu bere artelanak ikusgai

> ELKARRIZKETA Itsaso Esteban Zer lan ipini dituzu Bilboko Ercilla hotolean ikusgai?

Azken urteko sorkuntza ipini dut erakusketa horretan, hogeitatu bat lan: koadroak eta eskultura batzuk. Lagun batek animatu ninduen erakusketa ipintzera, eta oso pozik nago. Egia esan, nire lana erakusteko bultzadaxo bat behar izan dut beti. Pozgarria da jendeak “zelako artista zaren!” edo “aparteko eskua daukazu” esatea. Oso leku aproposa da, gainera; jende askok ikusten du zure lana, jende asko igarotzen da bertatik.

Aurretik egin izan duzue beste erakusketarik?

Bai, Gipuzkoan eta Araban egin izan ditut erakusketak, eta baita Durangoko Ezkurdiko aretoan ere. Bertan oso artista onen lanak erakutsi izan diren arren, aste gutxi Ezkurdikoa ez dela bategi leku aproposa erakusketarako: ezkutuan dago. Erakusketa kolektibo baten barruan erakutsi nuen nire lana bertan.

Zure herrian, Abadiñon, ez duzu lanik erakutsi inoiz?

Ez. Duela urte batzuk proiektu bat aurkeztu nuen Abadiñon,

tamaina handiko eskultura bat egiteko, baina egoera ekonomikoa zela-eta, udalak ez zuen aurrera egin, eta momentuz gelditu dago proiektu hori. Estilo kubistako eskultura bat da, harriz-jasotzaile bat oinarri duena.

Orain pintura lantzen duzue eskultura baino gehiago? Zela-koa izan da eboluzio hori?

Egurragaz hasi nintzen, duela 30 urte inguru. Beti izan dut oso gustuko zura lantzea; izan ere, ama altzari zaharren zalea da. Nik neuk hainbat altzari egin izan ditut, esaterako. Bestalde, txikitatik gustatu izan zait margotzea: maisuari jaramon egin beharrean, marrazkitxoak egin ibiltzen nintzen. Pintura eta egurra nahastu izan ditut gero, eta, azkenaldian, pinturan jardun dut gehiago. Finean, formarik ez daukanari forma ematea da gustatzen zaidana.

Zelan sortu zitzaizun erakusketako irudien ideia?

Seme-alaba bi dauzkat, eta beti nabil arropa zabaltzen... Halako batean etorri zitzaizun irudia: pintzaren formagaz giza figurak egitearena. Izan ere, margotzekotan, ez dut edozer egin nahi;

askok egiten dituzte paisaiak eta erretratuak, oso ondo gainera, eta nik beste zerbait egitea bilatzen dut. Egitekotan, zerbait desberdina egin behar dut, eta paisaiak margotuz gero, alegiazkoak izaten dira, neure buruan sortutakoak.

Autodidakta izan zara denean?

Bai, betidanik. Zaletasuna amandik jaso dut –amak nabaritzen zuen trebea nintzela eskulanetan-. Baina berez joan naiz ikasten, eginez: bidean sortzen zaizkizun arazoak konpontzen saiatzen. Ordu asko sartu behar da ikasteko, eta oso diziplinatua izan behar duzu.

Zelan antolatzen duzue eguna tailerrean aritzeko?

Zerbait esku artean daukadanean amaitu arte jo eta ke egiten dut lan egunero-egunero. Egurra lantzeak eskatzen du batez ere dedikazio handia. Eta lan oso fisikoa da, gainera. Ume txikiak askoz zailagoa izan zait denbora ateratzea, baina orain denerako astia daukat.

Zer ematen dizue sorkuntzak?

Neure buruaz lasai, gustura egiteko modua da niretzat.

Ukitu surrealista daukaten koadroak ipini dituzte Urizarbarrenak Bilbon

Begirik eta ahorik bako giza figura bereziak dira koadroetan ageri direnak

> PINTURA I.E.

Uztailaren 3an inauguratu zuen Bakarne Urizarbarrena abadiñarrak bere lanen erakusketa, Bilboko Ercilla hotolean. “Primeran” joan zela dio artistak berak, “giro magikoa” sortu zela: Bilbo, Eibar eta Durangoko hainbat lagun elkartzaren inaugurazio ekitaldian. Hain zuzen, Durangon daukan tailer txikian sorturikoak dira eskultorearen lanak.

Ukitu surrealista daukate Ercillan ikusgai dauden irudi figuratiboek. Begirik eta ahorik bako giza figura bereziak dira koadroetakoak: arropa eskegitzeko pintzak dituzte gorputz enbor. Badago, esaterako,

pintza gorputza duen amama jostun baten irudia.

Bakarne Urizarbarrenak azpimarratu du harrigarri egiten zaiola arropa eskegitzeko pintzen irudiagaz egindako marrazki batek zelako samurtasuna adierazi dezakeen.

Tamaina handiko hainbat eskultura lan egiteko proiektuak eta horien maketak prest dauzka artistak. Gustura ikusiko luke berak egindako maketa baten formatu handiko eskultura kalean. Baina zailtasunik handiena maketakoa eskala handira ekartzeko egin behar den inbertsioa gauzatzeko modua aurkitzea da. “Egunen batean loteria tokatzen bazait,

tamaina handiko hogeitatu eskultura egingo ditut!”, esan du barrez. Baina “dirua ez da dena”, zehaztu du: “Zure lana erosi gura duenik badago, primeran; baina asko balio du egiten duzuna jendeak gustuko izateak bakarrik ere”.

Originaltasuna helburu

Bakarne Urizarbarrenari ez zaio inporta besteek zer egiten duten, ezta modak ere. Besteenetik desberdina den obra sortu nahi du: ekarpena egin. Ez du zerbait polita bakarrik egin nahi. Hain justu, “originala” berba entzun zuen inaugurazio egunean gehien. Gustura dago, beraz, emaitzaz.



Lagunartean, joan zen egunean inauguratu zuten Bilboko erakusketa.



Arropa eskegitzeko pintzak dituzte koadroetako figurek gorputz enbor.

> PINTURA Itsaso Esteban 1900. urtean Zornotzan jaio zen Enrike Renteria pintorearen omenez hasi ziren kaleko pintura lehiaketa antolatzen Zornotzan, duela hamazazpi urte. Margo lehiaketaren XVII. edizioa izango dute domeka honetan. Zornoza Arte eta Kultura Elkarteak (SACZ) antolatzen du lehiaketa, eta Joseba Fernandez elkarteko lehendakariak, David Latxaga Zornotzako alkateak eta Andoni Agirrebeitia zinegotziak aurkeztu zuten aurtengo edizioa eguaztenean.

Joseba Fernandezek azaldu duenez, margo lehiaketa bi egingo dituzte uztailaren 13an, Zornotzan: batetik, kaleko pintura lehiaketa "tradizionala", eta, bestetik, herriko balkoiak bete dituen Zintzilik izenekoak.

Domekan bertan, 09:00etatik 11:00etara Zelaieta zentroan izena ematen duten margolariak hartuko dute parte kaleko pintura lehiaketa "tradizionalean". Lehiaketaren aurkezpenaz azaldu dutenez, iaz 40 lagunek hartu zuten parte, eta beste horrenbeste espero dituzte etziko ere. Domekan, 16:00etatik 17:00etara arteko tartea izango dute artistek egun horretan Zornotzako hirigunean zein Etxanoko gune historikoan egindako

Margolariek Zornotzako kaleak kolorez bustiko dituzte, etzi

Enrike Renteria pintura lehiaketaren XVII. edizioa ospatuko dute domekan



Agirrebeitia zinegotzia, Fernandez Zornoza Arte eta Kultura Elkarteak lehendakaria, eta Latxaga alkatea, aurkezpenaz.

marrakziak entregatzeko. Sei sari banatuko dituzte 14 urtetik gorako margolarien artean: 500 eurokoa lehenengoa. Bestalde, aurtun lehenengoz, margolari zornotzar baten koadrorik onenari 200 euroko sari berezia emango diote.

Balkoietatik zintzilik
Zintzilik izeneko lehiaketa ere egingo dute domekan, Zornotzan. 1,30x1,50 neurriko oihaletan egingo dituzte euren lanak lehiaketan parte hartuko duten hogeitaz artistek, eta herriko balkoietan ipiniko dituzte ikusgai.

Lehiaketaz kanpo beste 70 margolan ere izango dira Zintzilik lehiaketaren barruan, Zornotzako balkoiei kolorea ematen.

Uztailaren 13an bertan egingo dituzte margo lehiaketa bietako sari banaketa ekitaldiak: Zelaieta zentroan, 18:00etan.

7.500 euroko diru-laguntza, sorkuntza sustatzeko

Proiektu artistikoak garatzeko emango dute beka



Mikel Onandia arte historialariak jaso zuen diru-laguntza aurreko deialdian.

> LEHIAKETA

Irailaren 5era arte aurkeztu daitezke sorkuntzari loturiko proiektuak Durangoko Udalaren lehiaketara. Sorkuntza artistikoa bultzatzeko eta hedatzeko helburuz egiten du Astarloa Kulturgintza Erakunde Autonomoak deialdi hau, eta edozein diziplinatako sorkuntza lanak aurkeztu daitezke deialdira: muntaia eszenikoak, artelan plastikoak, argazkigintza, literatura, musika, ikus-entzuzko zein performance modalitateko lanak; denak dira ondo etorriak. Kulturaren edozein arlotako egitasmoa duen orok bere proiektua gauzatzeko diru-laguntza jaso dezake Durangoko Udalaren ekimenagaz.

Deialdi honetan 7.500 euroko diru-laguntza eskainiko du Astarloa Kulturgintzak. Epai-

mahaia erabakiko du kopuru hori beka batean edo proiektu bat baino gehiago garatzeko erabiliko den. Erabaki hori hartzeko, proiektuaren kalitate artistikoa lehenetsiko du. Era berean, kontuan izango ditu lana jendaurrean erakusteko aukerak, aurrekontuen doiketa eta, proiektuaren barruan hizkuntza elementu aktiboa denetan, euskararen erabilera.

Durangoko Arte eta Historia Museoa edo Hiritarren Arretarako Zerbitzuan aurkeztu daitezke eskaria eta proiektua: administrazio dokumentuak zein dokumentazio artistikoa -proiektuaren azalpen-memoria- aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek. Udalaren www.durango-udala.net webgunean dago deialdiaren inguruko informazio guztia.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berberoko kidea



Udako agenda

Erreka ertzean geratu da karrotxoa lagun. Plastikozko uhalekin burdinazko xasisera lotuta daroa bere ondasuna, motxila zaharrean sartuta. Xaboa eta toalla atera ditu, eguzkiak kolorgetutako kamiseta eta prakak erantsi, eta errekan sartu da xaboa eskuan. Eguratsak beltzuriko azala zuritutakoan, kamisetari igurtzi batzuk eman, eta eguzkitan ipini du. Santa Ana plazan entzierroan dabilta umeak, batzuk lepoko zapi gorritik behera dardarka, beste batzuk zirikatzaile. Haien pozari erreparatu eta, distantzian, hara zuzendu ditu begiak. Zezenak ukuiluratu direnean, ondasunak batu, eta erreka ondoko arbolapean etzan da hostoen itzalak aurpegian dantzari.

Lagunarekin nago Pinondon eserita, barealdia. Estetika aldatu da: jendea dendetan terrazetan bezain luze, praka motzak, tirantedun kamisetak, txankletak, umeen algarak... Bere herrialdean ere antzera bizi dute udaldia. Feliceri agenda ia hutsik ageri zaio, ez dago ohituta. Udaldia gozatzeko sasoia da, ikasturteko proiektuak, lanak, konpromisoak zeharo baztertu barik, alde batera uzteko unea; hori du buruan. Hala ere, jasanezina egiten zaio agenda zuri ikustea, koloreztatze beharra du. Bestalde, mugikorra eta sarearen bidezko kanal guztiak zabalik ditu, munduan zer gerta ere. Noraezean dabil, artega, agenda bete ezinean, ohituta baitago den-dena antolatuegi izaten, dena erosten... Ikusle hutsa izateak errudun sentiarazten du.

Lagunekin jarduteak agenda-zeregin inportanteenetakoa beharko lukeela esan diot. Inbidiaz begiratu dio akazi azpian etzanda dagoen erromesari. Hura altxatu egin da, bere motxilatik agenda atera eta idazten hasi da.

San Agustín KULTUR GINEA

uda kalean bizi 2014

Rouge Elea Calao
Uztailak 12, larunbata
20:00 - Kastejon parkea

Ortzi Ilusión
Uztailak 12, larunbata
20:45 - Udaletxe plaza

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

JAIAK!

Otxandio

2014ko UZTAILA



OTXANDIOKO
UDALA

*Otxandio udalak
jai zoriontsuak opa deutsuez!*

OTXANDIOKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 17, EGUENA

19:30ean, 'Salve Regina' abestuko dute Santa Marina elizan, herriko Oihandi abesbatzaz.

19:30ean, Otxandioko txistularien kalejira.

20:00etan, Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan.

21:00etan, txupinazoa, Otxandioko Gure Esku Dagoren eskutik.

21:05ean, danborrada Otxandioko musika bandagaz.

22:30ean, Joselu Anaiak taldearen kontzertua.

UZTAILAK 18, BARIKUA SANTA MANA EGUNA

12:00etan, meza nagusia, Oihandi abesbatzaren parte hartzeagaz.

12:00etan, kalejira Otxandioko musika bandagaz eta txistulariekin.

13:15ean, Urduri dantza taldearen emanaldia plazan.

17:30ean, pilota partiduak
Mañondon:
Afizionatuak: Mendia-Urrejola / Iturbe-Urbe
Profesionalak: Olaizola I-Matinez de Eulate / Gonzalez-Otxandorena

20:00etan, Urduri dantza taldearen erakustaldi berezia.

22:30ean, erromeria Luhartz taldeagaz plazan.

UZTAILAK 19, ZAPATUA GAZTE EGUNA

11:00etan, antzara joko erraldoia, 8-12 urte bitarteko umeentzat, Antxeta Ttan Ttakun taldearen eskutik.

13:00etan, kalejira Otxandioko Urbiribil dultzainero taldeagaz.

13:30ean, triki-poteoa tabernaz taberna.

15:00etan, gazte bazkaria plazan.

17:00etan, tute, mus eta briska txapelketa kontzejupean.

18:00etan, gazte olinpiadak plazan.

23:00etan, kontzertuak gaztetxean. Reeg, Irtenbide, Enkore.

22:30ean, Drindots taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 20, DOMEKA UMEEN EGUNA

07:30ean, diana eta kalejira..

08:00etan, sokamuturra.

11:00etan, umeentzako jolasak, Otxandioko Euskaldunon Amaraunek antolatuta (ahal duenak molto motorra ekarri).

12:30ean, arimen meza.

12:30ean, umeen eguneko txupina, seigarren mailako ikasleen eskutik.

Jarraian, 'Lorategi' antzerki obra (Paraiso taldea), 1-4 urte bitartekoentzat. Udaletxean.

17:30ean, jolas txokoa: adin guztietako umeentzako jolasak plazan.

20:00etan, 'Zoozoom' ikuskizuna, Markeliñe antzerki taldearen eskutik.

21:00etan, eguneko azken txupina, seigarren mailako ikasleen eskutik.

UZTAILAK 24, EGUENA

18:30ean, bizikleta saltoen erakustaldia Nebera mendia magalean. **18:30**ean Arkotxe inguruan hitzordua, denak elkarrekin joateko.

19:00etan, jubilatuentzako antzerkia, Laguntasuna taldearen eskutik, Mañondoko gimnasioan.

UZTAILAK 25, BARIKUA

19:00etan, 'Euskeraz guro' umeentzako herri krosa. 5 urtetik gorakoentzat 1,3 km inguruko ibilbidea. 2 eta 5 urte bitartekoek bizikletaz egin ahalko dute.

19:00etan, 'Euskeraz guro' herri krosa. 15 urtetik gorakoentzat. Bi ibilbide egongo dira aukeran: 5,19 km-koa eta 10,1ekoa. Mozorrotuta joateko deia egin dute.

22:00etan, 'Bagara eta bagoaz' Otxandion ekoiztutako film laburraren esteinaldia, Andikonan.

UZTAILAK 26, ZAPATUA SAN MARTIN

09:00etan, arrantza txapelketa Mataderoan.

12:00etan, kalejira Otxandioko musika bandagaz.

12:30ean, kalejira Otxandioko Urbiribil dultzainero taldeagaz.

12:30ean, meza San Martinen.

14:00etan, paella txapelketa San Martinen. Bolo txapelketa eta fanfarrea.

19:30ean, Akelarre txaranga kalerik kale.

23:30ean, Gatibu taldearen kontzertua. Gero dantzaldia eta gaupasa Ingo al deu erromeriagaz.

UZTAILAK 27, DOMEKA

12:00etan, meza nagusia.

12:30ean, Andikonako Foroak adostutako testua onartzeko ezohiko bilkura.

13:00etan, omenaldia 1936ko bonbardaketan hildakoei, Andikona plazan.

13:45ean, limonada plaza nagusian.

14:00etan Otxandioko eta Araiako bandak.

19:00etan, Antton Aranburu & Bakartiak musika taldea plazan.

22:30ean, Orutz taldearen eskutik erromeria.

00:00etan, 'Agur Santa Marina' abestuta, jaietako amaiera emango diete.

danoena
taberna

jai zoriontsuak denoi

plaza nagusia 5. OTHANDIO Tel.: 945 45 02 48



ETXEBARRI NEKAZALTURISMOA

- Antzinako jauregia. 6 logela bikoitz bainugelarekin, ile-lehorgailuarekin eta telebistarekin.
- Gela bat ezinduentzako egokitua.
- Egongela, telebistarekin eta mahai-jokoekin. Wifia.
- Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea.
- Aparkalekua eta lorategia, barbakoa, mahai eta jesariekuekin.

Otxandio (Olaetara bidean)
945 450 123 • 676 947 523



Ehun herritar baino gehiago aterako dira danborradan, uztailearen 17an.

Herritarren parte-hartzea oinarri duten jaietarako lanak eginda

48.000 euroko aurrekontuagaz antolatu du Jai Batzordeak jaietako egitaraua

> NOBEDADEAK Itsaso Esteban Jai Batzordeak adin guztietako 15-20 norbanakoren lanagaz antolatu ditu Otxandioko jaiak. Udalaren 33.000 euroko diru-laguntzagaz, eta autofinantziaziotik lorturiko 15.000 euroguz osaturiko aurrekontuagaz antolatu ditu jaiak. Martxotik dihardu Jai Batzordeak programazioan lanean, herriko kirol

eta kultur elkarten ezinbesteko parte-hartzeagaz: batukada eta txistulari taldeak, gazte asanblada eta Otxandioko Euskaldunon Amaraune elkarte dira, esaterako, eragile horietako batzuk.

Jaiak aurrera ateratzeko, talde txikietan antolatzen dira herritarrek; eurak arduratzen dira ekintzetarako beharrezko den guztia lotzeaz eta jaiak irau-

ten duten egunetan kaleak garbitzeaz, adibidez. Duela dozena bat urtetik Jai Batzordeak hartu du jaiak antolatzeko ardura.

Otxandioko Euskaldunon Amaraunek antolatu du aurten go jai egitarauko nobedadeetako bat: herri krosa. Uztailearen 25eko hitzordu horretarako, umeentzako zein 15 urtetik gorakoentzako ibilbideak antolatu

dituzte; 19:00etan hasiko da bata, eta 19:30ean bestea. Ekitaldiagaz euskararen aldeko mezua zabaldu gura du Otxandioko Euskaldunon Amaraune elkarteak jaietan ere.

Bestalde, herriko Urbiribil dultzainero taldeak kalejira bi eskainiko ditu jaietan, aurten, lehenengoz. Jubilatuei begira, ostera, jubilatuei aktore dituen Laguntasuna antzerki taldearen antzezlan izango da Mañondoko gimnasioan ikusgai. Egitarauan herritar horiei zerbait gehiago eskaintzea izan du Jai Batzordeak helburu.

Ehun herritar baino gehiago aterako dira kalera jaien lehenengo eguneko danborradan,

uztailearen 17an, 21:05ean, musika bandagaz batera; bestetik, Urduri dantza taldearen ekitaldi berezian 70 lagun inguru izango dira, uztailearen 18an, 13:15ean; eta uztailearen 19ko Gazte Eguneko olinpiadetan ere herriko ume eta heldu askok parte hartzen dute urtero-urtero.

San Martingo pagadiko uztailearen 26ko erromeria eguna ere tradizio handikoa da Otxandion. Bertan egiten dute paella txapelketa, eta han elkartzen da herria egun-pasa. Azkenik, 1937ko bonbardaketan hildakoen omenaldia hitzordu berezia izaten da Otxandioko jaietan. Andikona plazan izango da oroimen ekitaldia, uztailearen 27an, 13:00etan.



Uztailearen 19an egingo dituzte Gazte Eguneko olinpiadak.

Otxandiarrek sorturiko 'Bagara eta bagoaz' filmaren estreinaldia

Urtetan Otxandion egindako herrigintza lana eskertzeko sortu dute filma



Ilobak amamagaz Otxandion zehar egindako ibilaldia gogoratzen du filmak.

> FILMA I.E.

Herritar talde baten sormenetik jaiotako gidoian oinarriturikoa da *Bagara eta bagoaz* film laburra. Urte batzuk lehenago amamagaz Otxandion zehar egindako ibilaldia gogoratzen du film horretan ilobak: herriaren etorkizunari buruzko bere gogoetan amamak kontatu ziona oso presente dauka ilobak.

Hamar-hamabost laguneko talde bat aritu da filma sortzeko lanean, eta jaietan estreinatuko dute: uztailearen 25ean, 22:00etan, Andikona plazan.

Dolores Uribe, Naroa Basalo eta Maialen Arrinda dira *Bagara eta bagoaz* filmean aktore lanetan dihardutenak, eta Igor Ortega, Joseba Azkarraga eta Miren Aranguren ere agertzen dira bertan. Jone Gonzalez de Audikana da narratzailea.

Filma ekoizteko elkarlanean jardun diren herritarrek, eta, besteak beste, Unai Iturriaga eta Beñat Ugartetxea bertsolariek, eta Ander Lipus aktoreak ere parte hartuko dute filma estreinatzeko uztailearen 25erako antolatu duten ekitaldian.

Egileen berbetan, bi helburugaz sortu dute *Bagara eta bagoaz*: batetik, urte luzetan Otxandion egin den herrigintza lana omendu gura dute, eta, bestetik, XXI. mendeko erronkei begira jarri nahi dute.

Herri-ola parte-hartze prozesua garatzeko izandako helburu bereberekin jardun dira otxandiarrek *Bagara eta bagoaz* ekoizten: "Otxandiok komunitate trinkoa dela erakutsi du urte luzetan; herrigintza dinamika emankorra mantenduta", azpimarratu dute egileek: "Honaino ekarri gaituen komunitate sentimendua birsortzea, indartzea" da helburua.

Gogoeta prozesua garatu dute azken urte eta erdian, Herri-ola ekimenaren barruan, eta, Pello Otxandiano partaideak azaldu duenez, ondorio asko atara dira prozesu horretatik. Datozen bi urteetan Otxandion garatu beharreko hamar proiektu estrategikoak zehaztu dituzte, esaterako, eta uztailearen 25ean aurkeztuko dituzte horiek ere.

BAR **JATETXE**
Gure - Etxea

Urigoiena, 17
Teléf. (945) 45 02 00
OTXANDIO



Taberna
LORA



Artekale 16 - Tel.: 677 568 580 - OTXANDIO

KOSKA
TABERNA
Tel: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO

Itxaso López eta Onintze López de Letona | Gure Esku Dago dinamikako kideak

“Gure Esku Dagon gure asmoa da herrira zabaltzen jarraitu, eta ekarpenak jasotzea”

> ELKARRIZKETA J. Derteano Aurtan, Otxandioko Gure Esku Dago dinamikako lagunek botako dute Santa Maña jaiei hasiera emango dien txupinazoa. Pozik daude dinamika herrian jaso duen harreragaz, eta, aurrera begira, erabakitze eskubidearen aldeko pedagogia lana egiten jarraituko dute.

Noiz esan zizueten txupina botatzeko ardura izango zenuela?

Itxaso López: Ni Jai Batzordean ere banabil, eta han erabaki zen. Beste talde bat genuen buruan, txupina bota zezan, baina ezetz esan zuen, eta orduan Gure Esku Dago proposatu, eta denon adostasuna izan zuen.

Itxaso, zeu izan zinen taldeari jakinarazteko arduraduna?

I.L.: Bai, lehenengo, ea horren ardura hartzeko prest geunden galdetu nien taldekideei, eta denek baietz esan zuten.

Onintze López de Letona: Herriko jaietan txupinazoa botatzeko aukera izan, eta zelan esan ezetz horrelako proposamen bati?

I.L.: Gainera, merezi dugu, lan handia egon da Gure Esku Dago dinamikaren atzean.

Zer esango duzue pregoian?

I.L.: Oraindik ez dago erabakita. Astelehenean dugu batzarra, eta orduan egituratu dugu.

O.L.L.: Ez da luzea izango, zer edo zer arina izango da.



Itxaso Lopez eta Onintze Lopez de Letona udalbatxe pareko plazan.

Zelan joan da Gure Esku Dago dinamika Otxandion?

I.L.: Giza katea izan baino hirulau hilabete lehenago hasi ginen dinamika Otxandion sustatzen. Herritik oso erantzun ona jaso dugu. Batez ere azkenengo asteetan pilo bat metro eta kamiseta saldu genituen. Guk Durangon genuen gure kilometroa. Hasieran autoz joatea zen plana, baina azkenean autobusez joatea proposagoa zela erabaki genuen, eta aldaketa horri ere oso ondo erantzun zion jendeak. Alde horretatik oso pozik gaude.

Joera ideologiko desberdinetako jendea batzea lortu duzue.

I.L.: Bai. Nire ustez, jendeak ikusi du dinamikan sartuta genbiltzanok kuadrilla eta ideologia askotakoak garela, eta horrek konfiantza sortu duela.

O.L.L.: Herri txikia izatera, ahoz ahokoak ere ondo funtzionatu du. Gainera, askotan irten gara kalera; giza katearen aurreko hilean astebururo geunden plazan. Herritarrengana hurreratzen saiatu gara.

I.L.: Nik neuk espero ez nuen

jendea hurreratu da, baina egia da oraindik badagoela sektore bat herrian, momentuz, ez dena dinamikan sartu. Baina, dinamika aurrera jarraitzen duenez, asmoa da pedagogia lan hori egiten jarraitzea ahalik esparru zabalenean.

“Ekainaren 8an giza katea osatu zen momentua hunkigarria izan zen denontzat”

Zer oroitzapen utzi zizuen ekainaren 8ko giza kateak?

O.L.L.: Oso giro ona egon zen. Gure kilometroan 2.000 bat lagun izan ziren, 300dik gora otxandiarrak. Gure ardura 50 lagun batzea zela jakinda, oso pozik gaude.

I.L.: Giza katea egin zen ueña hunkigarria izan zen denontzat.

Sarritan aipatu izan da giza katea abiapuntua bakarrik izan zela. Aurrera begira zer?

O.L.L.: Gure taldekide bat Arrasateko batzar orokorrean izan zen, eta ideia nagusia da ez dagoela ezer erabakita. Orria zuri dago, eta denon artean egituratu behar ditugu etorkizunera begirako ildoak. Gure asmoa da herrira ahalik gehien zabaltzea, eta ekarpenak jasotzea.

Zelan bizi dituzue Santa Maña jaiak?

O.L.L.: Txupinazoa jaurtitzen den eguna oso polita da, ume askok hartzen dute parte danborradan. Bonbardaketaren inguruan Andikona plazan egiten den oroimen ekitaldia ere polita da. San Martin eguna ere gustatzen zait, kuadrilla guztietako lagunek San Martin ermitaren ondoan bazkaltzen dutelako.

I.L.: Egia esan, ni egunez baino gaez ibiltzen naiz jaietan [barrez]. Baina, Onintzek aipatu dituen guztiez gainera, Limonada Eguna ere oso ondo egoten da.

O.L.L.: Beti egoten da giro ona. Gasteiztik, Durangotik, Arrasate, Aramaiotik... etortzen da jendea. Egitaraua zabala da, guztion gustuetara egokitzen diren ekimenak daude.



Gure Esku Dago dinamika sustatzen ibili diren otxandiar batzuen familia argazkia.

Rosa Mari
Estankoa egunkariak
aldizkariak

Plaza Nagusia 9
• Otxandio
• Tel.: 945 45 00 33

URREJOLA
okindegia

ale eta ongarrien biltegia

Artekale 31
Tel.: 945 45 00 93
Otxandio

Haitz taberna

Artekale, 32
Tel.: 945 461 426
OTXANDIO


KOROSTONDO
janari denda

Artekale 19 OTXANDIO
Tel.: 945 45 00 94

JAIAK!

Zornotza

2014ko UZTAILA



Jai zoriontsuak opa deutsueguz!



AMOREBIETA - ETXANOKO
UDALA

ZORNOTZAKO JAIEN EGITARAUA

Uztailak 15, martitzena TXUPINAZOA

20:0etan, herriko plaza
Pregoa, txupinazoa eta kalejira,
Zornotzako eta Areatzako erraldoi
eta buruhandien konpartsak,
gaiteroak eta txistulariak

20:30ean, Kalbario plazan
Kaleko musika **SWINGDIGENTES**

22:00etan, Zubiondo plazan
Kontzertua **GATIBU**

Uztailak 16, eguaztena KARMEN EGUNA

11:00etan, Herrian zehar,
UDAZKEN taldearen kalejira.

Goizean, Larrean **KARMEN EGUNA**.
Meza, bertsolariak, **UDABARRI**
dantza taldea eta euskal erromeria
TRIKI PIU taldearekin.

Ostean, Larreako landetan
Herri kirolak

**2014 Urrezko Aizkolari
Txapelketa**
Ander ERASUN (Ituren)
Gazte mailako txapelduna
Ugaitz MUGERZA II (Mutriku)
Urrezko Binakako txapelduna
HARRI-JASOTZAILEA - Joseba Ostolaza

17:00etan, Ganen
Tenis lehiaketako finalurrekoak

18:00etan, Amorebieta IV
pilotalekuan
Pilota partidu profesionalak
Saralegi-Iza / Elezkano II-Larunbe
Olaizola II-Aretxabaleta /
Berasaluzte II-Albisu

20:00etan, herriko plazan
Dantza
KUKAI - CESC GELABERT

21:30ean, Zubiondo plazan
DEMODÉ QUARTET

Uztailak 17, eguena

17:00etan, Ganen
Tenis lehiaketako finalurrekoak

17:30ean, herritik zehar
Altxorraren bila

21:00etan, herriko plazan
MUMUSIC CIRCUS - 'Merci bien'

Uztailak 18, barikua

Egun osoan, txosnetan
KUADRILLEN EGUNA - Kuadrillen herri
bazkaria eta hainbat ekintza

Egun osoan,
AESK lokala Txiki Otaegin
Umeentzako III. Rally Slot
Amorebieta Txapelketa

17:00etan, Zelaieta parkean
Aldibereko 50 xake partida
Javier Marchenaren kontra
(Bizkaiko txapelduna)

17:00etan, txosnetan
Erdi Aroko jokoak

18:00etan, Zubiondo plazan
Bizikleta Eguna

19:00etan, Amorebieta IV
pilotalekuan
**Euskal Herriko Nesken Gomazko
Paleta Txapelketa** (finalurrekoak)

21:00etan, Zelaieta parkean
Txistularien XIV. Kontzertua
Artista gonbidatua: Gari

22:00etan, txosnetan
Kontzertua **URTZ**
Erromeria **ZIRKINIK BEZ**

23:00etan, Zubiondo plazan
Kontzertua **DOCTOR DESEO**

Uztailak 19, zapatua

Goizean, Zubiondo plazan
Marmitako lehiaketa

09:00etan Ibaizabal errekan
Umeen arrantza lehiaketa

11:00etan, Ganen
Tenis lehiaketako finalak

12:00etan, Jauregibarria
parkean
Arku-tiroa

17:00etan, Urbano Larruzea
kalean
XXXII. Xake Txapelketa
Agustín Zamakonaren Oroimenezkoa

18:00etan, Amorebieta IV
pilotalekuan
**Karmenetako VII. Esku Pilota
Txapelketa**, federatuen finalak

19:00etan, Zelaieta zentroan - DJ
TOPAKETA
Alex TC, Elektrik-o, Gonzalo
Morbid, Juan Solo, Koldo Loira,
Maik Dark, Ocariz, Plastic Duo, Phil
Flux, Unaiz, Xuban Laiño

20:00etan, kaleetan zehar
Kaleko musika **SUGARRI**

21:00etan, Zornotza Aretuan
Antzerkia
Txalo antzerki taldea - 'Hiru'

22:00etan, txosnetan
Kontzertuak **ORION CHILD**
+ THE MOCKERS
Erromeria **JOXPA**

23:00etan, Zubiondo plazan
Camp berbena **LONDON ORKESTRA**

Uztailak 20, domeka

Egun osoan,
AESK lokala Txiki Otaegin
Amorebietako Subbuteo
I. Txapelketa (Mahai futbol)

10:00etan, Kati Bi zalditegian
Ekitazio lehiaketa (modalitate
guztiak) Euskadiko Txapelketa

11:30ean, Zelaieta parkean
Umeentzako Ecojuga jolas parkea

11:30ean, Jauregibarrian
Ontzi-modelismo erakustaldia

12:00etan, Amorebieta IV
pilotalekuan
**Euskal Herriko Nesken Gomazko
Paleta Txapelketa**, finalak
Pilota desafioa
Zornotza / Mexico
Lagun Onak elkarteko bikotea /
Fernando 'Momo' Medina-Juan Medina

12:00etan, herriko plazan
Areatzako musika banda

17:00etan, Zelaieta parkean
Umeentzako puzgarriak

20:00etan, Gernika plazan
Antzerkia
TRAPUZAHARRA - 'Vive soñando'

22:00etan, Zelaieta parkean
Kontzertua **KORRONTZI**

Uztailak 21, astelehena

19:30ean, Amorebieta IV
pilotalekuan
Pala partiduak
Herriko Txapelketako finalerdiak

21:00etan, herriko plazan
BERTSOLARIAK
**Amets Arzallus / Jon Maia /
Onintza Enbeitia / Jone Uria**
Gai-jartzailea: Zornotzako bertso eskola
(Euria eginez gero, Zornotza Aretuan)

Uztailak 22, martitzena

19:00etan, txosnetan
Kuadrillen arteko **play-back lehiaketa**

21:30ean, herriko plazan
Nazioarteko dantzak
UMUZI WENKOSI (Hegoafrika)
(Euria eginez gero, Zornotza Aretuan)

Uztailak 23, eguaztena

18:30ean, Ibaizabal errekan
Kuadrillen arteko **piragua jaitsiera**

22:00etan, Zubiondo plazan
SETE SÓIS SETE LUAS FESTIBALA
TENORES DE NEONELI
(Sardinia-Italia)

7 SOÍIS MYTHOS ORQUESTA
(Portugal, Frantzia, Sizilia, Turkia)

22:30ean, herriko plazan
Kaleko zinema

Uztailak 24, eguena

19:00etan, umeen danborrada

19:30ean, Amorebieta IV
pilotalekuan
Pala partiduak
Herriko Txapelketako finalak

22:00etan, Zubiondo plazan
Kontzertua **LA PEGATINA**

23:30ean, txosnetan **DJ BULL**

Uztailak 25, barikua

Goizean, Zelaieta parkean
Baserritarren azoka

Egun osoan
Aitite-amamen jaia: meza,
aurreskua, erromeria... Izena
emateko: Nafarroa zentroa

09:00etan, Boroa industrialdean
LXXX. Usakume Tiroketa Ofiziala

10:00etan, txirrindularitza
**Junior mailako Euskadiko
Errepideko Txapelketa**
Amorebieta-Etxanoko Udala saria.
Irteera eta helmuga: Nafarroa kalean

11:00etan, Jauregibarrian
Bizkaiko Abelburu
Piriniotarren VI. Txapelketa

17:00etan, Amorebieta IV
pilotalekuan
Karmenetako VI. Esku Pilota
Txapelketa - Eskola mailakoen finalak.

18:30ean, Urritxe futbol zelaietan
SDA taldearen aurkezpen partidua
IV. Amorebieta-Etxanoko Udala saria

18:30ean, Zelaieta parkean
Kuadrillen arteko **herri kirolak**

21:30ean, Zubiondo plazan
Zu Zeu Artista! Herriko gazteen
proposamen eszenikoen V. lehiaketa

22:30ean, Jauregibarrian
Su artifizialak - Astondoa piroteknia

22:45ean, Zubiondo plazan
Disko Festa - Paradise On Tour
DJ Eneko Baranda + Jordi K
Dantzariak eta bits jaia.

23:00etan, txosnetan
Kontzertuak **SKAKEITAN +
ITZIARREN SEMEAK**

Uztailak 26, zapatua

09:00etan, Boroa industrialdean
LXXX. Usakume Tiroketa Herrikoia

11:00etan, Gure Kirolak
bolatokian
Umeentzako Bolo Txapelketa

11:30ean, Zelaieta parkean
Umeentzako jolas parkea

17:00etan, Zelaieta parkean
Umeentzako puzgarriak

17:00etan, Zubiondo plazan eta
Jauregibarrian
Amorebieta-Etxanoko III. Milia eta
II. Jailetako Lasterketa

19:00etan, Zelaieta parkean
Umeentzako antzerkia
SARDINA FRESKUE - Eidabe

21:00etan, Gure Kirolak
bolatokian
Karmenetako IV. Bolo Txapelketa

22:30ean, danborrada

23:00etan, txosnetan
Kontzertua **ESKEAN KRISTO**
Erromeria **BATEK DAKI**

24:00etan, Zubiondo plazan
TRÍO MEDIANOCHE

Uztailak 27, domeka

Goizean, kaleetan zehar
trikitarren topaketa

10:30 Txirrindularitza
Eskolen arteko topaketa
Irteera eta helmuga: San Juan kalea

19:30 Kuadrillen Arteko XV.
Mozorro Lehiaketa
Ladinamo eta Lokomotores
taldeekin

20:30 Herriko plaza
Mozorro lehiaketako sari banaketa

21:00 Harrison-Luis Urrengoetxea
-Euskal Herria plaza-Kalbarioa
Kaleko musika **LOKOMOTORES**

21:00 Andra Mari plaza-Zezilia
Gallartzagoitia
Kaleko musika **LADINAMO**

22:00 Zubiondo plaza
Kontzertua **BANDA CREBINSKY**

22:00 Txosnetan
BAD SOUND SYSTEM

“Herri batek egin ahal dituen jai onenak” hasiko dira martitzenean

Zornotzako jaien aurkezpena egin dute Latxagak, Agirrebeitiak eta Murillok

> MUSIKA Markel Onaindia Zornotzako jaiak hastear daude. Astelehenean egitarauaren aurkezpena egin zuten David Latxaga alkateak, Andoni Agirrebeitiak kultur zinegotziak eta David Murillo kultur teknikariak.

“Herri batek egin ahal dituen jai onenak”. Horrela definitu zituen Agirrebeitiak aurtengo jaiak. Jai Batzordeak eginiko lana eskertu zuen, baita bertan parte hartu duten elkarteek erakutsitako konpromisoa ere.

Latxagak adierazi zuen 2000. urtetik honako egitarauak begiratzen egon dela, eta eboluzio on bati esker aurtengoak onak izango direla berretsi zuen. “Egitarau ona izatetik ezin hobea edukitzera pasa gara”.



Ezkerretik eskumara, Agirrebeitiak, Latxaga eta Murillo.

Doctor Deseo: rocka, kabareta eta diskoteka batzen dituen ikuskizuna

Doctor Deseo taldea agertokietara bueltan da

> MUSIKA M.O. Musika izango da Zornotzako jaietako eskaintza garrantzitsuenetako bat. Egunez zein gauez, kaleko musikak eta kontzertuek beteko dute herria. Eta jai girorako aukera zabal horren artean, Doctor Deseok sortuko du ikusminik handiena. Francis eta konpainia agertokietara bueltan dira, *Busco en tus labios... Lo mejor del deseo* lan berriagaz.

Plateruenean egin zuten biraren estreinaldia martxoaren 7an. “Aurkezpen guztiak jai, intentsitate eta ospakizun bihurtu dira”, azaldu dute. Hiru ataletan banatu dute ikuskizuna: hasiera energiagaz betetakoa izan ohi da; tartean emozioei eta kabaretari uzten diete lekua, eta rockagaz eta diskoteka giroagaz amaitzen dute kontzertua. Adierazi dutenez, emanaldi guztietan helburu bera daukate:

“Publikoarengandik ahalik eta gertuen kokatzea, zuzeneko argiak ematen duen sentsibilitate bereziagaz lagunduta”.

80ko hamarkadatik hona Atzera begirakoa egin dute Doctor Deseokoek. Taldekideek diotenez, *Busco en tus labios* abestiagaz hasi zen guztia 80ko hamarkadan. Handik honako abesti esanguratsuenak freskatura eta berri batzuk gehituta osatu dute diskoa. Gainera, Bideografik ekoiztetxeak ondutako dokumentala ere badakarlant berriak.

Uztailaren 18an dator Zornotzara Bilboko taldea. Zubiondo plazan eskainiko ditu bere rocka, kabareta eta diskoteka, gaueko 23:00etatik aurrera.

Kultur egitura sendoagoa daukatela azaldu zuen alkateak: “Kultur arloan apustu handia egin dugu”. Jaietako txupinazoa Zornoza Arte eta Kultura Elkarteak botako du, aurtten 60 urte bete dituelako. Bere jardueran nagusia koralarrena izan arren, hainbat ekintza antolatu izan ditu, eta Latxagak gogoratu du sorreretan elkarteak sustatzen zuela herriko kultur jardueran. “Harrigarria da oraindik txupinazorik bota ez izana”, adierazi du autokritika eginda.

Alkateak eta zinegotziak egitarau zabala eta askotarikoa

David Latxaga alkatea: “Egitarau ona edukitzetik, ezin hobea edukitzera pasa gara”

egongo dela esan zuten. Agirrebeitiak eman zituen zehaztapenak, eta, musika, bertsolaritza, kirola eta antzerkia nabarmendu zituen. Guztira, 100 ekitaldi inguru antolatu dituzte: Gatiburen kontzertua 15ean, protagonistatzat Aimar Olaizola izango duen pilota jaialdia 16an, kua-

Karmen bezperatik Santanatzura, hamahiru eguneko ospakizuna dute zain zornotzarrek

drillen arteko paella-jana 18an, Trapuzaharra taldearen antzerkia 20an, umeen danborrada 24an, karroza desfilea 27an...

Egunez ere jai

David Murillok eman zuen aurtten indartu dituzten atalen berri. Autokritika egin, eta azaldu zuen orain arte domeka goizetan ez zegoela ia ekintzarik, eta esfortzu bat egin dutela tarte horiek betetzeko. Egunez ere jai egitearen aldeko deia egin zuen kultur teknikariak. Gainera, umeentzako egitaraua ere indartu dutela azpimarratu zuen.

Martitzenean, 20:00etan hasiko da jaiak. Karmen egunaren bezperatik Santanatzura egunera, hamahiru eguneko ospakizuna zain dute zornotzarrek. Latxagak esan lez, “jai indartsuak” izango dira, eta, Haizetara zein Jan Alai jaialdien ostean, herriko udako eskaintza kulturalari segida emango diote.



Francis, abeslaria, ohiko akrobazia bat egiten.

ner group

EKIN

BROTAXAKETA ETA IJEZKETA TEKNOLOGIA
Erremintak eta makinak

EKIN S.Coop.
Arriagane industrialdea z/g (Boroa suzoa)
E-48340 Amorebieta-Etxano
www.ekin.es email: ekin@ekin.es
Tel.: +34 6731112 - Fax: +34 6300451

**Produkzio fabrikak
BRASILEn, INDIAn eta MEXIKOn**

Zornoza elkarteak, bere 60. urteurrenean, jaietako pregoia botatzeko ardura izango du

Joseba Fernández elkarteko presidentek botako du aurten jaietako hasiera ofiziala emango dien pregoia



Iaz, abesbatzak Portugalera egindako bidaiaren ateratako argazkia.



Zornoza abesbatzaren argazki zahar bat.

> PREGOIA Jone Guenetxea Zornoza kultur elkarteak izango du aurten Zornotzako jaietako hasiera emateaz arduratuko dena. Joseba Fernández elkarteko presidentek azaldu duenez, poztasunez eta harrotasunez hartu dute pregoia irakurtzeko erantzukizuna: "Pregoiaren zer esan azzertzen gabiltza batzordean. Ez dugu luzea izaterik gura, jendea eta jaiak direlako protagonistak". Fernández bera izango da jaietako haisierako pregoia irakurriko duena.

Zornozaren 60. urteurrena ospatzen dihardute aurten. Sorreratik, elkarteak hainbat ekimen bultzatu ditu kultur arloan. Sei hamarkadako ibilbidean

taldea unean uneko beharriaz netara egokitu dela gogoratu du Fernandezek. "Dantza talde bat izan genuen, eta euskara ikastaroak, antzerki taldea eta txistulari taldea antolatuta izan ditugu. Momentu honetan bada go dantza talde bat, euskaltegiak ere badaude, baina bere garaian, horrelakorik ez zegoenean, hutsune hori bete genuen".

Urteurren ospakizunen barruan, ekainaren 8an, Bizkaiko abesbatzen jaialdia antolatu zuten Zornotzan. Izan ere, elkartearen ardatza abesbatza da. Egun, hogeita abeslarik dihardute Mireia Izagirrek zuzentzen duen taldean. Elkartean 160 bazkide dituzten arren, abesbatzako kide izateko ez da zertan elkarteko bazkide izan.

Urteurren ekitaldiekin jarraituko dute uda ostean ere. Santa Zezilia egunaren inguruan ere urteurren ekitaldiren bat prestatzekoa asmoa dute.

Ekintza ugari

Enrike Renteria kaleko margo lehiaketa ere Zornozak antolatzen du. Horrekin batera, balikoietan margoak eskegitzeko olanak ere jartzen dituzte. Gainera, gazteen artean irakurzaletasuna bultzatu guran, ipuin lehiaketa antolatzen dihardute hamalau urtez herriko ikastetxeekin batera.

Zornozaren ardatza abesbatza da. Egun, hogeita abeslarik dihardute Mireia Izagirregaz

IBAIZABAL
Saneamientos

www.ibaizabalsaneamientos.com

DURAVIT

banatzaile ofiziala

Bainuontzitik dutxaontzirako aldaketa. Instalazioa egiteko egokitze lanak.



1



2

Silex dutxaontziaren instalazioa, aluminio leunduko ertzekin.



3

Erakusketa

Karmen kalea, 16
AMOREBIETA-ETXANO
Tel. / Faxe: 946 301 550

Biltegia

Arriagane industrialdea, 16
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 601 Faxe: 946 732 550

ORAIN ZORNOTZAN ERE BAI

Astekaria doan jasoko duzu zure etxean, datuak bete eta harpidetza-orri hau ANBOTOren helbidera bidalita. www.anboto.org webgunean duzu harpidedun egiteko aukera edo, bestela, anboto@anboto.org helbide elektronikora mezua bidali, eta egin zure eskaera.

Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
946 816 558 · www.anboto.org

IZENA

ABIZENAK

HELBIDEA / HERRIA

TELEFONOA

EMAILA

Egin zaituz harpidedun!

DOAN



GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialden, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **GARBIKETA**

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2.esk - Elorrio - 615 79 12 15

 **LOREZAINNTZA**

Jardines Patxi Lokategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

 **ITURGINTZA**

urtiaga
Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



Profesional onenak zure zerbitzura!

Jabier Muguruza | Musikaria | Irun, 1960

Xavier Mercadé.

“Disko biluzia nahi nuen, baina kolore instrumental berri batzuekin”

Domekan, uztailearen 13an, ariko da Jabier Muguruza Elorrioko Tola jauregiko lorategian, Musikairen

> MUSIKA Itsaso Esteban
 lazko urrian kaleratu zuen ‘Beste hoge’ diskoa aurkeztera dator Jabier Muguruza musikaria domekan, Durangaldera. Hamar kantako diskoa da Muguruza irundarraren hamabigarren hori, eta Mikel Azpiroz piano jotzaileagaz grabatu zuen. Hain zuzen, Azpirozek lagunduta izango dira entzungai Muguruzaren ahotsa eta esku-soinua. Tola jauregian, Musikaire jaialdiaren barruan eskainiko dute emanaldia.

Zelako kontzertua prestatu duzue Elorrion eskaintzeko? Garai honetan azken diskoa aurkezten gabilta, eta Elorrion ere horixe egingo dugu: *Beste hoge* obraren zuzeneko defentsa.

Ibilbide osoko kantak joko dituzue, ala ‘Beste hoge’ diskoak joko dituzue bakarrik? Azkeneko diskoa hartuko dugu ardatz, baina badaude kantu zaharrago batzuk ere, ia nahi-taez jo behar direnak, bestela, publikoak faltan sentitzen ditu.

Diskoaren grabazioaren ardura izan duen Mikel Azpiroz izango duzu laguntzen Elorrion, ezta? Harreman berezia da Azpirozegaz daukazuna? Gure harremana ez da berria, bera izan zelako *Fiordoan* eta *Hain guapa zaude* diskoetako piano jotzailea. Geroztik, modu batera edo bestera, beti mantendu dugu harremana, profesionala eta pertsonala. Orain, pianoa jotzeaz gainera, moldaketan

arduraduna ere bada. Primeran moldatzen gara, eta ez agertokian bakarrik, baita bidaietan, furgonetan eta ofizioak dakarren abar luze horretan ere.

Zelan joan zen diskoaren grabazioa? Zer ukitu eman dio Azpirozek grabazioari? Zeren bila jardun zarete?

Grabaketaren prestaketa martxan jarri baino lehen luze hitz egin genuen, eta garbi azaldu nion lortu nahi nuen kontzeptua zein zen. Disko biluzia nahi nuen, *Bikote bat* diskoaren estilokoa, baina kolore instrumental berri batzuekin. Bera oso ondo egokitu zen ideia nagusi horretara, eta giro guztiz egokiak asmatu zituen kantetarako, musikari bikaina da eta.

“*Pianoa jotzeaz gainera, moldaketan arduraduna da Mikel Azpiroz*”

“*Gizartean gertatzen ari dena modu nabarmenagoan azaldu nahi nuen*”

Aurreko lanetan bezala, hainbat euskal idazle lagunek sorturiko letrak bildu dituzu diskoan. Gizarte gaiei lotuago daude disko honetako letrak? Bai, batetik betiko tematika intimista hori dago, publikoko pertsona bakoitzari, banan-banan hartuta, abestu nahi izaten diodana. Baina oraingoan, horretaz aparte, gizartean gertatzen ari direnak modu nabarmenagoan azaldu nahi nituen, erabat lotsagarriak direlako.

Lehenago ere jo izan duzu Elorrion. Zer oroitzapen duzu? Elorrion jota nago, bai, duela urte batzuk Arriola aretoan. Kontzertu hartako oso oroitzapen ona gordetzen dut.

Eman diezu begiratua Musikairen programazioari? Zer iruditzen zaizu eskaintza? Luxuzko programazioa da, inongo dudarik gabe. Musika maite duen inork ez dizu hori ukatuko. Gainera, horietako dezentelagunak ditut, eta horrek ere ilusio berezia egiten du.

m o m o t x o
 t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
 48200 Durango
 Tel.: 946 811 006

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

%20ko DESKONTUA,
 UZTAIA ETA ABUZTUAN

688 864 975
 info@zuretxokoa.com

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKARUA

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komentubakale 21 beheko, 5. esk. - 48.200 Durango - BIZKAIA

 **Kirola****Olatz Agorria** | Beste Alde taldeko txirrindularia | Euba (Zornotza), 1996

“Profesionaletara heltzea amets bat da, baina lortzen saiatuko naiz”

Olatz Agorria txirrindulari eubarra Euskadiko txapelduna da junior mailan

> TXIRRINDULARITZA M.O.

Selektibitatea egiteko atsedean bat hartu ostean, gogor dabil entrenatzen Olatz Agorria, irailen Murtzian jokatu den Espainiako Txapelketari begira. Beste Alde taldeko txirrindulari gazteak Euskadiko Txapelketa irabazi du aurten, junior mailan, eta horren aurretik Bizkaiko txapela ere jantzi zuen. Profesionaletako ametsa ikasketen erralitateagaz bateratzen du.

Denboraldi bikaina osatzen zabalza, txapelketa bi lortuta.

Lehenengotan ez nintzen izan Bizkaikoa korritzekotan. Nire aitita hil berri zen, eta ez neukan gogorik. Baina animatu egin ninduten, eta azkenean korritu egin nuen. Helmugan sartu eta gero gogoratu nintzen Bizkaiko Txapelketa zela, eta irabazi egin nuela esan zidaten. Euskadikoa ez nuen inondik inora espero. Esana zidaten oso gogorra zela. Arinagoko lasterketetan ondo nenbilen, eta txapelketan aurrean sartu nintzen. Gero, Du-

rango-Durango nazioarteko klasi-kan ere parte hartu eta amaitu egin nuen, espero ez arren.

Zelan joan zen Euskadiko Txapelketa?

Amaieran hiru geratu ginen, Eider Unanue, Naia Leonet eta hirurok. Eta esan nuen: “Hau da nire unea; edo beherantz zer edo zer egin, edo esprintean ez dut aukerarik izango”. Eurek esprintean ahalmen handia daukate, eta ez nuen horra heldu gura, oso gaitza izango litzatekeelako, ezinezkoa. Beraz, beherantz ihes egin nuen, eta, gutxiatik, baina irabazi egin nuen.

Zer sentitu zenuen irabaztean?

Irabazten dudan lehenengo aldia zen, beraz, oso pozik nago. Hasieran ez nuen sinisten. Euskadiko Txapelketa irabaztea motibazio handia izan da.

Zeren emaitza da garaipena?

Entrenatzearena eta eguneroko lanarena. Hainbat gauzaren batura izan da.

Zerk eraginda hasi zinen txirrindularitzan?

Nire ustez, neska asko lez. Aita bizikletan ibiltzen zen, eta neba ere hasi zen. Aitak nebaren lasterketetara eta entrenamenduetara eramaten ninduen, eta azkenean izena ematera animatu ninduen. Orduan gimnasia erritmikoa ere egiten nuen. Eskolan nenbilela, azkeneko urtean, ea Espainiako lehietara joan gura nuen galdetu zidaten, eta baietz esan nuen. Orduan hasi nintzen serioago hartzen.

Gaur egun zer da txirrindularitza zuretzat?

Bizitzeko modu bat da. Ikasten nagoenean, ikasi eta entrenatu egiten dut. Orain, udan entrenatzea oso ondo etortzen zait, burua lasaitzeko eta argitzeko balio dit. Lagunak ere egin ditut kirol honi esker. Bestalde, gauzak lortzean asetu egiten zara, lan guztiak zentzu bat daukala ikusten duzu. Norberagaz pozik egoteko modu bat da txirrindularitza.

Zelako txirrindularia zara? Esprinterra ez, ezta?

Ez, inolaz ere ez. Euskadikoan hirutik hirugarren izango nintzatekeen. Bajatzen ez daukat beldurrik, eta arriskatu egiten dut. Igoeretan eutsi egiten diot, eta iaiztik hobetu egin dut, gainera. Jendeak dio esprinterra dela, edo igotzailea; ni esprinterra izan ezik, beste edozer naiz.

Pistan ere ibilia zara.

Bai, neguan pistan aritzen nintzen, eta gero errepidean. Baina aurten ez dut pistarik egin, hemengo belodromoan eurria badago, ezin delako ibili. Horren

baldintzapean ez egoteko ez dut egin pistarik. Errepidea entretenuagoa da, gainera.

Zein mendate igo nahi zenuke?

Hain justu, joan zen asteburuan Tourmalet (Frantzia) eta Aubisque (Frantzia) igotzen egon nintzen. Paisaiak oso politak dira; baina suabe-suabe igotzeko. Lagun baten gurasoek Luchon-Baiona lasterketa egin zuten, eta horregatik egon garahan.

“

Gauzak lortzean asetu egiten zara, lan guztiak zentzu bat daukala ikusten duzu”

Hurrengo hilabeteetarako zer asmo daukazu?

Orain, mutilenetan parte hartu. Gero, Espainiako Kopako bi edo hiru proba geratzen dira: 19an, Zamoran (Espainia), eta hurrengo Villarçayon (Espainia). Irailean Espainiako Txapelketa helduko da, Murtzian. Gogorra izango da, Murtzian sekulako beroa egin ahal digulako.

Eta aurrerago?

Lehenengo ikasi, honetaz bizitzea oso gaitza delako, kasik ezinezkoa. Profesionaletara heltzea amets bat da, baina ametsa lortzen saiatuko naiz.

Zein da zure erreferentea?

Adibidez, Eneritz Iturriaga. Italiara joan zen, eta han beste era batean bizi da txirrindularitza. Baina bera lez, ametsa errealtate bihurtu duen beste edozein ere bai.



Agorria, helmugan, garaipena ospatzen.



Durangaldeko Amankomunazgoko presidentea eta Durango Kirol Taldeko ordezkariak txapelketaren aurkezpenean.

Beteranorik onenak Espainiako txapelaren bila bihar, Durangon

Goizean urteroko kriteriuma egingo dute, eta arratsaldean Espainiako Txapelketa

> ATLETISMOA Joseba Derteano Durango Kirol Taldeak antolatuta, Espainiako Beteranoen Kluben Arteko Txapelketa jokatu dute larunbatean Durangoko atletismo pistan. 2008tik hona antolatzen den Durango Uria Atletismo Kriteriumari eutsi egingo diote, baina goizera mugatuko dute. Arratsaldean, 16:00etatik aurrera, Espainiako 320 atleta betetanorik onenak lehiatuko dira. Horrela, asteburu bitan Espainiako Txapelketa bana hartuko du Durangok:

promesen mailakoa joan zen asteburuan eta betetanoena datorren zapatuan.

Arratsaldean, 24 talde lehiatuko dira atletismo pistan: gizonen klubak maila bitan banatuko dituzte, eta emakumeen zortzi taldeak maila berean ariko dira. Euskal Autonomia Erkidegoak ordezkari bakarra izango du: Durango Kirol Taldea emakumeetan. Katalunia eta Madril dira ordezkari handiena duten erkidegoak, eta Andaluzia eta Kanaria uharteetatik ere eto-

rriko dira taldeak, besteak beste. Izen propioen artean hainbat nabarmendu daitezke; esaterako, Grigoriy Yegorov (Benacantil AT) –pertika jauzian brontzeko domina lortu zuen 1988ko Seulgo Olinpiar Jokoetan–, eta Loles Vives (Avinent Manresa) –60 metroan eta luzera jauzian hainbat bider izan da Europako txapelduna–. Iaz Europako urteko markarik onenetako batzuk Durangon egin ziren.

Goizeko 11:00etan kriteriuma jokatu dute maila indibidua-

lean 100 bat atletek. Durango Kirol Taldeak hamar bat atleta ariko dira hainbat modalitateetan: Jose Luis Romerok 400 metroan parte hartuko du, eta Daniel Fernandezek gorako jauzian, besteak beste.

Durango podiumaren bila

Durango Kirol Taldeak sasoi batean aurre egingo dio txapelketari. Otsailean Taldekako Pista Estaliko Espainiako Txapelketa irabazi zuen emakumeen taldeak, eta “orain orduan baino hobeto daude”, Durango Kirol Taldeko presidente Juan Sampedroren esanetan. Aurora Pérez madrildarra da taldeko izarra (bere ibilbidean 47 domina lortu ditu nazioarteko txapelketetan, eta 2013ko atleta betetanorik onenaren saria eman zioten iaz), baina lesio bat sendatzen dabil, eta ez dakite etortzeko modurik izango duen. Hala ere, talde lehiakorra dute, eta podiumean sartzea da helburua.

ORDUTEGIA-UZTAILAK 12

11:00 Durango Uria Kriteriuma

16:00 Kluben Arteko Txapelketa

21:00 Gizonen 5.000 metroen opena

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

EHko mendi lasterketen selekzioko hautatzailea

Ultratrailak modan

Mendi lasterketen artean gero eta modalitate gehiago ari gara ikusten azken urteotan: laburrak eta azkarrak, luzeagoak eta desnibel handiagokoak, kilometro bertikalak, gauez korritzen direnak eta abar. Baina moda-modan jarri direnak, eta denetan ikusmin handiena pizten dutenak *ultra* deritzen modalitatekoak dira, lasterketa luze-luzeak.

60, 80 edo 100 kilometrotik gorako lasterketak dira ultrak, eta batez besteko desnibel metatua asko aldatzen da lasterketa batetik bestera. Badirudi mendiko korrikalariak, *ultra* eta *extreme* hitzak bultzatuta edo, gero eta erronka gogorragoak bilatzen dituztela. Askorentzat, zenbat eta luzeagoak eta desnibel handiagokoak izan, hobe. Euskal Herrian bertan baditugu zenbait: Apuko Extrem (65 km), Hiru Handiak (100 km), Euskal Herria Mendi Erronka (63 km), Goierriko Bi Handiak (88 km) edo Ehunmiliak (168 km). Azken biak asteburu honetan jokatu dira, Beasainen.

Ikaragarria da lasterketa hauetan izena ematen duen jende kopurua. Hiru Handietan, esate baterako, lehenengo egunean agortu ziren dortsak guztiak. Ultratrailak, beraz, osasun egoera onean daude. Ultratrailetan parte hartzen dutenen osasun egoera ez dela hain ona izango pentsatuko du batek baino gehiagok, gorputzak astindu ederra hartzen duelako. Ondo prestatzea da kontua.

Jose Angel Insunza gogoratuko dute

Sari berezi bat atera dute abiadura probetan

Zapatuko kriteriumean sari berezi bi banatuko dituzte: 100, 200 eta 400 metroko abiadura lasterketetan portzentajerik onena duen gizonetakoak eta emakumeetakoak Jose Angel Insunza saria jasoko dute. Insunza gogoratzea “aspalditik egin guran” zebiltzan zerbait dela adierazi du Durango Kirol Taldeko presidente Juan Sampedrok. Insunzaren ala-

ba, Ainhoa, Durangoko Kirol Taldean dabil gaur egun. Jose Angel Insunza gernikarra zen, eta “atletismoa erlijioa” zen berarentzat. Abiadura probetan aritzen zen batik bat: “Bizkaiko atletismoak bere historian izan duen urterik onenetan bera lehiari aritu zen; ez zen gehien narbarmentzen zena, baina bai giroa jartzen zuena eta beste denei gozarazten ziena”.



Jose Angel Insunza 1974an, Bilboko San Ignazioko atletismo pistan.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



JATETXE GIDA

ÑAM!**LAPIKO**

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com**ÑAM!****MENU BEREZIA**Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria**60€**
bikoteko
(BEZa barne)**JULIANTXU**

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.**ÑAM!****PEDRO JUAN**

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.**ÑAM!****IBARRA SAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.

Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi personarentzako menua zozkatuko dugu

Nork eman du Elorrion sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa?ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: **Iraide Iriondo**, zorionak!**ZORTE ON!**

“Hurrengo denboraldian aurtengoa berdintzen edo hobetzen saiatuko gara”

Ibon Carretok urtebetez luzatu du kontratua Zornotza Saskibaloitza Taldeagaz



Ibon Carreto aurtengo partidu batean. Zornotza ST.

> SASKIBALOIA J. Derteano Ibon Carreto (Durango, 1985) hegal-pibotak Zornotza Saskibaloitza Taldean jarraituko du, gutxienez beste urtebetez. Iaz Zilarrezko mailako Adecco ligako saskiratzaile nagusia izan zen, eta balorazioan ligako bost jokalariren artean sartu zen. Beraz, Zornotzak taldeko izar nagusiarri eustea lortu du, eta datorren denboraldiari begira egituratzen dabilen taldeko zutarr nagusienetakoa izango da.

“Lana, neska-laguna eta familia hemen ditut; Gainera, urte asko eman ditut kanpoan jokatzen”

Negoiazioak “arin” joan dira, Carretoren ustez; aste bi iraun dute, eta “oso pozik” dago akordioa lortu izanagaz. Normala zen moduan, hainbat eskaintza izan ditu mahai gainean: esaterako, Frantziatik bakarrik hiru-lau, maila bat goragoko taldeetatik. Zornotzangeratzeko hainbat faktore hartu ditu kontuan: “Lana, neska-laguna eta familia hemen ditut. Gainera, dagoeneko urte asko eman ditut kanpoan jokatzen”. Klubagaz

ere gustura dago, “betidanik etxekoa banintz bezala tratatu nautelako”. Jokalari lez Tabirako Baquen hezi ostean, Donostian eta Lugon (Galizia) urte bana eman zituen EBA mailako taldeetan, eta, ondoren, beste hiru urte Logroñon (Errioxa, Espainia), Zilarrezko mailako Adecco ligako talde batean.

“Urtea opari bat izan da”

Aste batzuk joan dira denboraldia amaitu zutenetik. Aurreikuspenak hautsi, eta igoerako playoffa jokatu zuten; marea berdeari urte gogoangarria eskaini zieten: “Joandako denboraldia opari bat izan da denontzat. Mailari eustea genuen helburu, eta playoffetara sailkatzea lortu dugu. Hori guztia denboraldi honetan lesio asko izan ditugula kontuan hartuta”.

Bere errendimendu handiaren gakoak “konfiantza eta esperientzia” direla uste du: “Jokalaria bat konfiantzagaz dagoenean, dena ondo irten ohi da”.

Egindakoak klubaren historiako geratuko dira, baina orain aurrera begiratzeko unea da. Datorren denboraldiari begira muga oso goian ipini du: “Aurten ezin du helburu izan mailari eusteak. Hurrengo denboraldian aurtengoa berdintzen edo hobetzen saiatuko gara”.

125 gaztetxok parte hartu dute Tabirako Baqueren udako eskolan

> SASKIBALOIA J.D.

Tabirako Baqué saskibaloitza klubak aurtengo udako eskolaren balorazio positiboa egin du. Aste bi iraun du, eta, klubeko ordezkariak jakinarazi dutenez, 7 eta 14 urte arteko 125 gaztetxok parte hartu dute. Urtero legez, saskibaloitza lotutako ekimenez gainera, tenisagaz, atletismoagaz, igeriketaz eta bestelako kirolekin gozatzeko aukera eskaini diete izena eman duten gazteei.

Saskibaloitza lotutako ekimenez gainera, tenisa eta igeriketa praktikatu ahal izan dituzte

Aurtengoa udako eskolaren zazpigarren aldia izan da, eta gaur egungo Zuzendaritza Batzordeak antolatutako duen azkena. Izan ere, Itsaso Gartzia Tabirako presidentea Zuzendaritza Batzordea utziko du 2015eko ekainean. Hurrengo kudeatzailerari udako eskolagaz jarraitzeko eskatu die, “oso ekimen asegarria delako”. Era berean, Enric Ameller kirol zuzendariari eskerrak eman dizkio bere “kirol plangintza bikainagatik”. Entrenatzaileen “lana eta esfortzua” ere nabarmendu ditu, eta gurasoen konfiantza eskertu die.

Gernikak bigarren urtez jarraian irabazi du herriarteko txapelketa

Markina menderatu zuten gernikarrek Elorrioren

> PILOTA J.D.

Eguzkia lagun, Elorrioko pilotaleku irekian jokatu ahal izan zituzten Bizkaiko Herriarteko Pilota Txapelketako finalak. Harmailak erabat bete ziren, eta jendeak edozein zirrikitu aprobetxatu zuen partiduak zutik ikusteko: 600 lagun inguruk bete zuten pilotalekua.

Goizean hirugarren eta lauugarren postuak erabaki zituzten Elorriok eta Zornotzak. Gazte eta nagusi mailetako partiduak Elorriorentzat izan ziren; txapelketa oso ona biribildu zuen zaleen aurrean. Arratsaldeko finalean, Markinak 22-13 irabazi zuen kadeteetan; Gernikak finala berdindu zuen gazteetan, 22-15 irabazita. Nagusietan espero baino oreka gutxiago izan zen:

22-11. Markinarren bikotean Andoni Malaxetxebarriak aurrelari jokatu zuen, eta normalean atzean aritzen delako igarritzaion. Jon Bilbao gernikarrek, aldiz, Malaxetxebarriari falta izan zitzaizkion dohain guztiak erakutsi zituen: arin defentsan eta azti tantoa amaitzerako orduan. Horrela, iazko txapela berri du Gernikak. Iaz ere Markina menderatu zuen finalean. Herriartekoan bosgarren garaipena du.

Finala Pako Arroiabere gogoratzeko ere baliatu zuten. Aurten hil da Arroia. Pilotaria izan zen, baina, batez ere, pilotagile gisa zen ezaguna. Arroiaberen inguruko argazki bilduma erakutsi zuten, eta bere familiak hainbat oroigarri jaso zituen.



Gernikako pilotariak txapela buruan, askotariko erakundeetako ordezkariekin.



Pako Arroiaberen familia, omenaldian.



Pilotaleku irekian 600 lagunetik gora batu zen.




Konprometituta



aecc

*Contra el Cáncer
Minbiziaren Aurka*



Zure erosketarekin,
saldutako pakete
bakoitzeko, 5
zentimo zuzenduko
ditugu (AECC)

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500 euro hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 125.000 €
- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- MONAGOTORRE: 4 logela, komun 2, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 140.000 eurotik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berrizteko. Eremu onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoa kanpora begira. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzeke.

BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landetxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekotak eta bikoak.

- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTZA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Trastelekua.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta ganbara.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta ganbara.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Ganbara.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
- JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA



- Bakixa auzoa. 6.800 m2-ko lursaila. Bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Eguzkitsua. **200.000€** (prezio negoziagarria).

EUBA



- Arkotza auzoa. 3.500 m2-ko lursail lau ederra inguru zoragarri batean. Inguruan beste baserri eta txalet batzuk ditu. Eremu zabala, familiarrekot etxebizitza eraikitzeko baimenarekin. **179.000€** (prezio negoziagarria).

IZURTZA



- 1.000 m2-ko lursaila etxebizitza familiarrekot eraikitzeko. **100.000€**.

IZURTZA



- Berrizteko dagoen baserria salgai. 120 m2-ko solairu bi, eta 80 m2-ko etxabe estalia. 450 m2-ko ortua. Teilatu berria. **90.000€**.

BERRIZ



- Bi solairutan banatutako etxebizitza: 3 logela, bainugela 2, galeria zoragarria, guztiz hornitutako sukaldea jangelarekin, egongela tximiniarekin. 1.100 m2-ko lursaila fruta-arbolekin. **318.000€** (prezio negoziagarria).

IURRETA



- Bakixa auzoa. 138 m2-ko baserria salgai. Solairu bi dauzka berrizteko. 800 m2-ko lursaila. Prezio interesgarria: **149.000€** (prezio negoziagarria).

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- OIÑITURRI (EZKURDI): 140 m2. 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Eguzkitsua. Solariumarekin.
- TXALETA. 590 m2. 300 m2-ko lursaila. 300.000€.
- MARTXOAREN 8KO KALEA: 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea. 236.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Balkoia. Orain 24.000 €gutxiago.
- ABADIÑO. Muntzaratz: Logela 2 eta komun 2. Ganbara eta garajea. 142.000€.
- ABADIÑO Muntzaratz: 3 logela, komun 2, sukaldea eta jangela terrazarekin. Trastelekua eta garaje itxia.
- IURRETA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Guztiz berriztua. 110.000€.
- IURRETA: Erdigunean. Lehen solairua. 3 logela eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan. 93.000€.
- KOMENTUKALEA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Igogailua. 150.000€.
- LANDAKO: Apartamentua. Trastelekua eta garajea. 140.000€.
- MONAGOTORRE: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Balkoia. Ganbara eta garajea. 290.000€.
- DURANGO. Ezki kalea (Duplexa): Logela 2. Bizitzaren sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.
- MATIENA. 3 logela, komuna eta egongela-sukaldea. Guztiz berriztua. 135.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Garajea. 266.000€.
- ASTEPE: Etxebizitza altua. 3 logela, komun 2 eta sukaldea esekitokiarekin. Terrazak. Trastelekua eta garajea.
- ARAMOTZ: 85 m2. 4 logela, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. 126.000€.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2, egongela handia eta terraza 2. Berogailua eta igogailua. Ganbara. 186.000€.
- ARTEKALEA: 85 m2. Logela 2 eta komuna. Berriztua. 140.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 12 urte dituen etxebizitza. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela handia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- MONAGOTORRE: 70 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Eguzkitsua.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua eta igogailua. 140.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trastelekua eta garajea.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, egongela, sukaldea despentsarekin eta terraza. 169.000€.
- EZKURDI: Etxebizitza altua. 4 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua.
- DURANGO: Logela 2, sukaldea office-arekin eta egongela. 138.000€.
- TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Sukaldea eta komuna jantziak. Ganbara. 160.000€.
- TABIRA: 3 logela eta komun 2. Lehen mailako materialak. Etxe osoa kanpora begira.
- IURRETA. Uralde: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Leiho berriak. Igogailua. Trastelekua. 130.000€.
- BERRIZ. ZENGOTITABENGOA. 120 m2. 4 logela eta komun 2. Terraza 2. Ganbara. Eguzkitsua. 216.000€.
- IZURTZA: Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 114.500€.
- TXALETA. ABADIÑO: 300 m2. Lorategiarekin. 510.000€.

www.inmoetxetxo.com

anboto.iragarki**laburrak**.com


ANBOTO INMOBILIARIA ETXELAN
 NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
 946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
 www.inmobiliariaetxelan.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Erref. 420: 65 m2-ko lokala etxebizitza edo lokal komertzial gisa jartzeko aukerarekin. 90.000€.
- Erref. 327: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 155.000€.
- Erref. 499: 70 m2-ko pisua. 2 logela, komuna eta sukalde amerikarra. 155.000€.
- Erref. 492: 70 m2-ko pisua. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 96.150€.
- Erref. 472: 65 m2-ko pisu berria. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra. 161.000€.
- Erref. 547: 50 m2-ko apartamentua. Logela eta bainugela. 154.500€.
- Erref. 474: 95 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garajea.
- Lokalak salgai toki paregabean, dimentsioak; 250 m2, 170 m2, 140 m2 121 m2, 101m2, 62,5 m2 eta 105 m2.
- Erref. 140: 76 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 149.300€.
- Erref. 473: 65 m2-ko pisu berria. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra. 164.000€.
- Erref. 407: 65m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 148.600€.
- Erref. 550: 95 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 185.300€.
- Erref. 565: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 125.000€.
- Erref. 568: 115 m2-ko pisua. 4 logela eta 2 komun. 40 m2-ko trasteleku. 155.000€.
- Lursailak: Unifamiliarra eta bifamiliarra eraikitzeko aukera. 230.000€/330.000€.
- 3 logelako etxebizitza. 72.000€.
- 70 m2-ko pisua. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 40 m2-ko trasteleku. 84.000€.

ATXONDO

- Erref. 495: 95 m2-ko pisua. 3 logela 2 komun, sukaldea, egongela eta terraza. Garage itxia. (prezioan ez dago barne) 200.000€.
- Erref. 469: 200 m2-ko adosatua. 5 logela, 4 komun eta egongela-sukaldea. Terraza, lorategia eta 2 kotxerentzako garajea. Kontsultatu.
- Erref. 428: 383 m2-ko baserria. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Lursaila. 385.000€.
- Erref. 427: 900 m2-ko baserria. 9 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Lursaila. Kontsultatu.
- Erref. 333: 75 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 180.000€.

ABADIÑO

- Txaleta. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta egongela. Berria dago. 570.000€.
- Erref. 372: 83 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 246.000€.
- Erref. 325: 90 m2-ko pisua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 105.000€. Kontsultatu.

BERRIZ

- 60 m2. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 126.000€.
- Erref 540: Txalet berria. 1.200 m2-ko lursaila. 600.000€.
- Erref. 373: 68 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Aukera paregabea..

Sartu gure webgunean
www.inmobiliariaetxelan.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Garai. Baserria salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Ondare legez errehabilitaziorako 30.000 euroko diru-laguntza du. 10.000 m2-ko lursaila. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200 m2-ko baratzea, fruta-arbolak. Landetxe bat martxan jartzeko edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetzak kontsultategia eta jatetxeak gertu ditu; autobus geltokitik 150 metrora. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistaren sarreratik 5 minutara. Telefonoa: 639-83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritza edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 metro lur. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

Otxandio. 65m-ko pisua salgai, altzariz jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Lehen solairuan 2 gela, egongela, sukaldea, despentsa eta komuna. Denak kanpokalderantz ematen du. Gainera, hirugarren solairuan 6 m2-ko trasteleku bat dauka leiho batekin, estudio txiki baterako oso aproposa. Eraikuntza 2003. urtekoa da. 120.000 euro. Tel.: 634-44 47 76.

ERRENTAN EMAN

Bilbo. Bilboko San Adrian auzoan etxea alokairuan. Prezioa, garajearekin 700 euro hilean. Garajerik gabe, 630 euro. 3 logelako etxea, bi komun, egongela eta sukaldea. Etxea guztiz

jantzita. Interesatuak idatzi helbide honetara: alokatuetxea@gmail.com

Lemoa. Pisua alokatzen da Lemoan. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela handia, balkoia eta garajea. Etxebizitza berria. Tel.: 656-77 16 62

Otxandio. Otxandion apartamentua alokagai edo salgai altzariek, trastelekuarekin eta igogailuarekin. Tel.: 675-71 72 83.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Pisukide bila gabiltza Tabira ondoan dagoen pisu baterako. Leku lasaia, hizkuntza eskolaren ondoan, eta Alde Zaharretik gertu. Animatu eta deitu! Tel.: 650-13 16 31.

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN EMAN

Otxandio. Otxandion bi garaje alokatzen dira, bata pertsianarekin eta bestea pertsianarik gabe. Tel.: 675-71 72 83.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Emakume euskalduna prest dago asteleheneretik ostiralera, 19:30etik aurrera, pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 697-49 20 58.

Durungaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil aste bitartean; barneko zein eguneko langile gisa, pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko. Tel.: 652-13 02 31.

Durungaldea. Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka. Tel.: 632-59 32 80.

Durungaldea. Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko. 24 orduz edo egunez. Tel.: 632-08 85 71.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Durungaldea.

Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan aritzeko. 24 orduz, egunez zein orduka. Tel.: 631-26 89 68.

Durungaldea. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko, barneko edo eguneko langile gisa; ordu-tegi malgua. Tel.: 632-50 81 38.

IRAKASKUNTZA

Durango. Erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak; LH, DBH eta batxilergoa. Eskola partikularrak, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa). Esperientzia. Tel.: 656 79 15 99.

GAINERAKOAK

Durango. Durangoko Azokako prentsa bulegorako koordinatzailea behar da. Lana irailetik abendura. Nahitaezkoak dira: komunikazio arloan esperientzia, kultura gintzaren ezagutza, eta euskaraz eta gaztelaniaz lan egiteko gaitasuna. Curriculumak bidali: laneskaintzak@gmail.com.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Durungaldea. Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxe lanak egiteko. Barneko edo eguneko langile gisa. Tel.: 689-39 12 61.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut, eta atariak eta tabernak garbitzeko prest nago. Tel.: 638-52 39 22.

Durungaldea. Haur Hezkuntzako hezitzaile euskalduna Durangaldean umeak zaintzeko prest.

Tel.: 674-60 86 07.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99

Durango. Lehen Hezkuntzako gradua amaitzear dagoen mutil euskaldun gaztea eskola partikularrak emateko prest. Udan zein datorren ikasturtean izan daiteke. Esperientzia nahikoarekin. Tel.: 646-47 02 09.

NEGOZIOAK / TRASPASOAK

SALDU

Durango. Durangon fruta denda bat eskualdatzen da. Harategia ere badu, eta baita beste produktu batzuk saltzeko apalak ere. Ondo kokatuta dago, eta urte askoko ibilbidea du. Tel.: 626-15 68 17 / 647-44 40 57.

Denetarik

EMAN / HARTU

Baserriko katuak oparitzen dira. Baserriko katuak oparitzen dira. Tel.: 663-34 11 28.

Katuak eta txakurrak oparitzen dira. Hiru katu zuri eta beltz bat, eta arratoi-txakur eta artzain-txakur nahastea duten txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 633-87 05 51.

Ibilgailuak

BESTE IBILGAILUAK

SALDU

Karabana salgai. 4-5 plazadun Roller karabana salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 679-31 00 83.



RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
 Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 12an,
20:00etan, Durango

Calao

Durangoko Kastejon parkeko zuhaitz batetik zintzilikatuta ariko da Corine Cella dantzaria, bihar. Gitarraren zuzeneko musikak lagunduriko ikuskizuna eskainiko du Rouge Elea taldeak Uda Kanean Bizi jaialdiaren barruan. Zirkuko eta antzerkiko teknikak uztartzen dituzte emanaldian.

Antzerkia

:: DURANGO

Uztailaren 12an,
20:00etan, **Rouge Elea** taldearen 'Calao', Kastejon parkean.
20:45ean, **Ortzi Acostaren 'Ilusión'**, udaletxe aurreko plazan. Uda Kanean Bizi.

Uztailaren 17an,
20:00etan, **Maite Arrese eta Mau Ziemkiewick-en 'Amodiozko ipuinak'**, Kurutzasantun.

Musika

:: ELORRIO

Uztailaren 11n,
22:30ean, **Habib Koité**, Tola jauregian. Musikaire.

Uztailaren 12an,
22:30ean, **Antonio Zambujo**, Tola jauregian.

Uztailaren 13an,
20:00etan, **Jabier Murguruza**, Tola jauregian. Musikaire.

Uztailaren 18an,
22:30ean, **Kepa Junkera**, Tola jauregian. Musikaire.

Jaiak

:: ABADIÑO (Mendiola)

Uztailaren 11n, 23:00etan, **Odolkiak ordainetan + Arkada Social + Las Tea Party DJ**.

Uztailaren 12an,
13:00etan, **auto klasikoen erakusketa**. 14:30ean, **herri bazkaria**. 16:30ean, **umeentzako jolasak**. 17:30ean, **XIX. Artzain-txakur Txapelketa**. 19:00etan, **tortilla txapelketa**. 22:30ean, **erromeria Luhartz taldeagaz**. 00:00etan, **bolo txapelketa**. 03:00etan, **txokolatea bizkotxoekin**.

Uztailaren 13an,
11:30ean, **meza**. 12:30ean, **Alluitz dantza taldearen emanaldia**. 13:00etan, **errifen zozketa eta Donien Atxa kentzea**.

:: OTXANDIO

Uztailaren 17an, 19:30ean, **'Salve Regina' abestea Oihandi abesbatzagaz**, Santa Marina elizan. **Txistularien kalejira**, herrian zehar. 20:00etan, **pre-soen eskubideen aldeko elkarretaratzea**, plazan. 21:00etan, **txupinazoa Gure Esku Dago dinamikako partaideen eskutik**. 21:05ean, **danborrada**, kalearik kale. 22:30ean, **Joselu Anaiak**.

Uztailaren 18an,
12:00etan, **meza nagusia Oihandi abesbatzagaz eta musika bandaren eta txistularien kalejira**, herrian zehar. 13:15ean, **Urduri dantza taldearen ekitaldia**, herriko plazan. 17:30ean, **pilota partiduak**, Mañondon. 20:00etan, **Urduri dantza taldearen erakustaldia**. 22:30ean, **erromeria Luhartz taldeagaz**, herriko plazan. 00:30ean, **play-back txapelketa**. Jarraian, **Luhartz**, goizaldera arte.

:: ZALDIBAR

Uztailaren 13an,
12:00etan, **euskal dantzak**, San Martinen.

:: ZORNOTZA

Uztailaren 15ean,
20:00etan, **pregoia, txupinazoa eta kalejira**. 20:30ean, **Swingdientes**, Kalbario plazan. 22:00etan, **Gatibu**, Zubiondo plazan.

Uztailaren 16an,
20:00etan, **Kukai + Cesc Gelabert**, herriko plazan. 21:30ean, **Demodé Quartet**, Zubiondo plazan.

Uztailaren 17an,
11:00etan, **3x3 futbola**, Zelaieta parkean. 17:00etan, **tenis lehiaketako finalurrekoak**. 17:30ean, **Altxorraren bila**, herrian zehar. 21:00etan, **Mumusic Circus**, herriko plazan.

Uztailaren 18an,
17:00etan, **aldibereko 50 xake partida Javier Marchenaren kontra**, Zelaieta parkean. 17:00etan, **Erdi Aroko jokoak**, txosnetan. 18:00etan, **Bizikleta Eguna**, Zubiondo plazan. 19:00etan, **Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa**, Amorebieta IV pilotalekuan. 21:00etan, **Txistularien XVI. Kontzertua**, Zelaieta parkean. 22:00etan, **Urtz + Zirkunik bez**, txosnetan. 23:00etan, **Doctor Deseo**, Zubiondo plazan.

Irteera

:: ELORRIO

Uztailaren 12an,
09:00etan, **'Elorrioko iturriak' mendi ibilbidea**, Erdella Mendizale taldeagaz, herriko plazatik.


Berbaldia

:: DURANGO

Uztailaren 11n, 10:30ean, **'Ekintzaile izateko gaitasuna: sortzeko, sinetsi'**, Behargintzan.

:: ZORNOTZA

Uztailaren 15ean,
10:30ean, **'Ekintzaile izateko gaitasuna: sortzeko, sinetsi'**, Zelaieta Zentroan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Juntos y revueltos

Zuzendaria: Frank Coraci
• barikua 11: 19:30
• zapatua 12: 19:30
• astelehena 14: 18:30

El sueño de Ellis

Zuzendaria: James Gray
• barikua 11: 22:00
• zapatua 12: 22:30
• domeka 13: 19:00/21:30
• astelehena 14: 21:00
• martitzena 15: 20:00

2. ARETOA

1.000 maneras de morder el polvo

Zuzendaria: Seth MacFarlane
• barikua 11: 19:30
• zapatua 12: 19:30
• domeka 13: 19:15
• astelehena 14: 18:30

Amanece en Edimburgo

Zuzendaria: Dexter Fletcher
• barikua 11: 22:00
• zapatua 12: 22:30
• domeka 13: 21:30
• astelehena 14: 21:00
• martitzena 15: 20:00

Juntos y revueltos

• zapatua 12: 17:00
• domeka 13: 16:45

:: ZORNOTZA

Mil maneras de morder el polvo

Zuzendaria: Seth MacFarlane
• barikua 11: 20:15
• zapatua 12: 19:30/22:30
• domeka 13: 20:00
• astelehena 14: 20:15

Uztailaren 12an, 22:30ean, Elorrión

Antonio Zambujo

Besteak beste, Portugalgo gitarra, klarineta eta kontrabaxua jotzen duten taldeko musikari handiek lagunduta ariko da Antonio Zambujo abeslaria, Elorrión. Tola jauregian eskainiko dute fadoa, jazz, bossanova eta Zambujoren jaitoterriko, Alentejo eskualdeko, kanta tradizionala uztartzen dituen sorkuntza. Umetan klarineta jotzen ikasi zuen Zambujok, eta hogeitaka urteagaz gitarra hartu, eta Lisboako Alfamako tabernetan hasi zen fadoak kantatzen. 'Quinto' izenburuko diskoko kanta, sentsibiltate handiz interpretaturikoak, eskainiko ditu Elorrioko Tola jauregiko lorategian.





Jaiak

Jai hotsa datorrigu nahinondik, baina oihartzunik ozenena Iruñea aldetik heltzen zaigu egunokaz. Nork ez du behin edo behin Nafarroako hiriburuko jaietara hurbiltzeko irrika izan? Ahaztezina lehenengoz joan nintzeneko parranda. Harrezkero ere egun-pasa ederrak egin ditudala aitortu behar.

Euskal Herriko jairik entzutesuenak omen dira, eta mundu osotik Iruñeratzan da jendea, batez ere, entzierroek erakarritak. Egia esan, ez dut inoiz ulertu zezenen aurrean arinetan eta bizia arriskuan jartzeak gizonei sortzen dien emozioa, baina bakoitzak bere gustuak dituenekin ezin ukatu.

Deigarria hango eliza eta herri agintariek galaz jantzita egiten duten prozesioa. Zinegotzi bakoitzaren jantziak 3.000 euro balio duela irakurri dut. Hogeitakaz zinegotzi izanik, atera kontuak; 80.000 eurotik gora, eta antza Edurne Egin zinegotzia izan da trajeari uko egin dion bakarra. Ohitura? Tradizioa? Beti elizaren atzetik ibili behar ote dugu? Gainera, aurtengo prozesioko irudiak ikustekoak dira, jendea "UPN kanpora!" oihuka, eta udaltzainak agintariak babestu ezinda.

Nik aukeran gurago gure inguruko jaiak eta ikuskizunak, hortxe ditugu auzuneetakoak zein Zaldibar, Otxandio eta Garaikoak. Ezin aipatu barik utzi Zornotzakoak, entzutetsuenak ez badira ere, luzeenetarikoak. Bertan ere hainbat ikuskizun interesgarri egongo dira, eta, garrantzitsuena, herritarrek partaide sentitzeko aukera izango dute.

Jaiak disfrutatzeko eta egunerokotasunak sortzen duen zama astunetik irteteko abagune paregabea dira. Disfruta dezagun jaietan, eta, mutilok, kontuz! Ez ahaztu andreok aspaldian darabilgun aldarria: "Ezetz, ezetz da jaietan ere".

“Pintxo lehiaketan parte hartzea jaietan lan egitea baino gogorragoa da”

Imanol Bazek zerbitzari onenaren saria jaso du Zornotzako Jan Alai pintxo lehiaketan

> AKUILUA Jone Guenetxea Zornotzako zerbitzari onenagaz hitzordua dugu Urtza tabernan. Pintxo betetako barraren ostean irribarre bategaz hartu gaitu, galderak erantzuteko prest. Jan Alai pintxo lehiaketa amaitu ostean, herriko jaietara etorri eta Urtzako langileek.

Zelan joan zen pintxo lehiaketa?

Ondo joan zen. Egun haietan jende asko ibili zen herrian. Iaz baino jende gutxiago ibili zen arren, 2.600-2.800 pintxo banatu genituen. Hala ere, iaz askoz gehiago banatu genituen.

Krisia igarri duzue pintxo lehiaketan?

Iaz 37 tabernek parte hartu zuten, eta aurten, berriz, 57k. Beraz, uste dut jendea banatu egin dela.

Pintxo lehiaketan zerbitzari onenaren saria jaso duzu. Pozik jasotako esker onagaz?

Sari hori irabazten dudana hiru-garren urtea izan da, eta pozik hartu dut saria. Jendea esker-tu gura diot saria irabazi izana.

Bezeroek zelan baloratzen dute zerbitzariaren lana?

Gune bakoitzeko hiru pintxo jan behar dira, eta jendeak bozkatu egiten du lehiaketaren harira banatutako eskuorrian.

Zergatik uste duzu bezeroek zuri eman dizutela boto gehien?

Bezeroek esan beharko lukete botoa zergatik eman didaten. Interneten irakurri nuen eske-

rrak eman dizkidatela irribarre-etsu egoten naizelako.

Zerbitzari on batek zer ezauzgarri izan behar ditu?

Kalean den modukoa izan behar du lanean ere. Bezeroak lagun moduan tratatzea izan daiteke gakoetako bat.

Plaka bat jaso duzu, baina sari ekonomikorik ez. Bezeroek badute zerekin adarra jo.

Beste sari guztiek diru kopuru bat dute, baina honek ez: plaka bat da.

Beti irribarreitsu egotea, baina, ez da erraza izango.

Beti ez duzu egun ona izaten, baina ezin duzu aurpegi txarrik jarri. Lan hau horrelakoa da. Gainera, bezeroen artean ere denetarik dago.

Badakigu zerbitzari ona zarela, baina bezero moduan zorrotza zara?

Bezero txarra naiz gaue-tan. Apur bat adarjotzaila naiz [barrez].

Iaz pintxo eta zerbitzari onenaren sariak irabazi zenituzten.

Julen anaiaren pintxoak irabazi zuen lehiaketa. Kono batean sartutako arrautza gorringoa zen, eta pernilez eginiko gela, patata bitsa eta kea zeramatzen. Anaiak sukaldaritza ikasi du, eta gogoko du pintxoak egitea.

Beste txapelketa batzuk ere irabazi dituzue.

Bizkaiko Pintxo Lehiaketa irabazi genuen, eta Euskal Herrikoan lehenengo hamar onenen artean gelditu ginen.

Jaiak badatoz. Lan gogorra al da?

Pintxo lehiaketan parte hartzea jaietan lan egitea baino askoz gogorragoa da. Pintxo momentuan presentatu

behar da, eta mundu guztiak momentuan gura du. Jaietan zerbitzatzea beste gauza bat da.

Edarien munduan egunera egongo zara. Zer izan da eskatu dizuten edaririk arraroena?

Lehenegoa, pintxo txapelketan, muztioa gaseosagaz eta ardoagaz eskatu zidaten.

Jaietan baduzu gozatzeko astirik?

Bai, bariku bat, zapatu bat eta Santanatu eguna, mozorrotzeko eguna, jai hartzen ditut. Egitarautik gehien gustatzen zaidana kontzertuak dira. Gatibu eta Doctor Deseo etorriko dira aurten.



Uda honetan

PLATERUEN PLATERAK

• Bariku eta zapatu iluntzeetan •

Razioak
Entsaladak
Etxeko pizzak
Kazolatxoak
Postreak